



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

GRADU AMAIERAKO LANA

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

Bizi Toki hezkuntza eredu eraldatzailea?

Egilea: Garagarza Cambra, Aitor

Zuzendaria: Beloki Arizti, Nekane

Leioan, 2015ko ekainaren 3an



Creative Commons Reconocimiento 4.0 Internacional.

Aurkibidea:

1. Sarrera.....	1
2. Marko Teorikoa.....	2
3. Helburu eta Hipotesiak.....	8
4. Marko Metodologikoa.....	9
5. Lanaren Garapena.....	11
5.1 Bizi Tokiren osaketa arkitektonikoa.....	13
5.2 Jakintzaren osaketa eta transmisioa.....	16
5.3 Pertsonen arteko erlazioak eta erabakiak.....	18
6. Ondorioak.....	21
7. Erreferentzia bibliografikoak.....	25

Eranskinak

Eranskina: 1. Elkarrizketa.....	21
Eranskina: 2. Elkarrizketa.....	29
Eranskina: Elkarrizketaren gidoia.....	34
Eranskina: Behaketa.....	34

Abstract:

Haurra kapitalismoaren subjektu antagoniko gisa definituz, kapitalismoa eta eskolaren arteko lotura du abiapuntu gisa lan honek. Kapitalismoaren birproduzio eta metaketarako beharrezkoa den eskola bi ikuspegitik aztertzen da. Alde batetik, kapitalismoaren osaketa arkitektonikotik. Bestetik, kapitalismoaren balore, ohitura eta erlazioatzeko forma hegemonikoen transmisioetik. Bi ildo teoriko horietan oinarrituta, ikerketa lan honen objektu nagusia zera da, jendarte post-kapitalista eraikitzen ari den Bizi Toki proiektua. Horretarako metodologia kualitatiboa erabili dugu; elkarrizketa erdi egituratua, behaketa eta dokumentuen analisia hain zuzen ere.

Hitz gakoak: Hezkuntza, kapitalismoa, eskola, osaketa arkitektonikoa, transmisioa, erlazioak, hegemonia

Definiendo a l@s niñ@s como sujetos antagónicos del capitalismo, este trabajo tiene como punto de partida la unión entre la escuela y el capitalismo. Siendo la escuela necesaria para la reproducción y acumulación del capitalismo se analizara desde dos ejes. Por un lado, desde la configuración arquitectónica del capitalismo. Por otro lado, desde la transmisión hegemónica de valores, costumbres, y formas de relacionarse capitalistas. Tomando estos dos ejes teóricos como base, el objeto de estudio de este trabajo es el proyecto Bizi Toki que esta construyendo una sociedad post-capitalista. Para ello se ha utilizado metodología cualitativa; entrevistas medio estructuradas, observación y análisis de documento.

Palabras clave: Educación, capitalismo, escuela, configuración arquitectónica, transmisión, relaciones, hegemonia

Defining kids as antagonistic subjects of the capitalism, this work has like a starting point the merger between the school and the capitalism. Being the school necessary for the reproduction and accumulation of the capitalism, it will be analyzed from two central concepts. On the one hand, from the architectonic configuration of the capitalism. On the other hand, from the hegemonic transmission of the values, customs and capitalism forms of relations. Taking these two central concepts as a basis, the object of study of this work is the Bizi Toki project which is building a post-capitalist society. For it, it has been used a qualitative methodology: half organized interviews, observations and documents analysis.

Keywords: Education, capitalism, school, architectonic configuration, transmission, relations, hegemony

1. Sarrera:

Orain dela lau urte Gasteizen hasitako bidearen azken lana den honetan, lau urte hauetan egindako gogoeta sakonak jaso nahi izan ditut. Bide baten amaieran nagoelarik, lan honetan hezkuntzari buruz dudan ikuspegia jasotzen ahalegindu naiz.

Horretarako, Bizi Toki jendarte proiektua izango dugu aztergai. Hain zuzen ere, hezkuntzaren transmisioa nola gauzatzen den gaur egungo hezkuntza eredu hegemonikoarekin alderatuz. Bizi Toki 2011tik Behauzen, Nafarro Behera, martxan dagoen proiektua dugu. Hezkuntzaren problematikatik abiarazi baziren ere, gaur egun proiektu zabalagoa suposatzen du.

Lanaren egituraketari dagokionez, lehenengo atalean marko teorikoa topatuko duzue. Bertan, iturri teoriko desberdinak erabilia haurra kapitalismoaren subjektu antagoniko gisa definitzen dugu. Kapitalismoa eta eskolaren arteko loturetan sakonduz, zein bertan sortzen diren egitura, balore, ikuspegiak edota erlazionatzeko forma hegemonikoak aztertuz.

Ondoren, lan honen helburuak eta horren arabera sortarazitako hipotesiak zeintzuk diren plazaratzen ditugu. Kasu honetan, Bizi Toki hezkuntza eredu post-kapitalista bultzatzen ari den edo ez aztertuko dugu. Jarraian, lanaren helburuak eta hipotesiak betetzen diren edo ez aztertzeko aurrera eramango dugun metodologia duzue. Marko metodologikoan, hiru teknika desberdin erabili ditugu; elkarrizketa ez egituratuak, behaketa eta dokumentuen analisisia.

Teknika horien bidez lortutako informazioa lanaren garapenean jaso dugu. Hasiera batean, Bizi Toki zer den azaldu eta ondoren, informazioa hiru kategoria nagusi desberdinetan banandu dugu; alde batetik osaketa arkitektonikoa, bestetik jakintzen osaketa eta transmisioa, eta azkenik pertsonen arteko erlazioak eta erabakiak.

Amaitzeko, lanaren ondorioak dituzue. Aurreko ataleko datuak marko teorikoarekin alderatuz, planteatutako hipotesiak betetzen diren edo ez, aztertu ditugu. Azken atalean, egindako ikerketa osoaren emaitzak dituzue.

Lanari hasiera eman aurretik, eskerrak ematea lau urte hauetan bide lagun izan ditudan ikaskide guztiei, familiari, etorkizuneko irakasle iraultzaile onena izango den Iosebari, tutoreari, Bizi Tokiko kide guztiei eskainitako aukeragatik, nire pisu-kideei, Begoñeri, Aletxuri, Israri, Albizuri... eta bide hau egiten lagundu didazuen pertsona guztiei.

2. Marko teorikoa:

“La moderna sociedad burguesa se alza sobre las ruinas de la sociedad feudal que no ha abolido los antagonismos de clase. Lo que ha hecho ha sido crear nuevas clases, nuevas condiciones de opresión...” (Marx & Engels, 1848, 36.orr). Marxismoaren aitzindariak diren bi autore hauek aipatzen dute jendarte kapitalistan bi subjektu nagusi daudela, talka egiten duten bi subjektu antagonikoak. Burgesia eta proletalgora, klase zapaltzailea eta klase zapaldua.

Marxismoak sistema kapitalistari buruz egiten duen irakurketan aipatu ditudan bi talde sozial nagusi horiek ageri zaizkigu. Hauen arteko gatazkak irakurketa marxistaren zentralitatea bereganatu dute. Alabaina, badaude klase zapalkuntzarekin elkarlotuta dauden bestelako zapalkuntza formak eta giza taldeak: emakumeak, hetero-normatibismoarekin apurtzen duten norbanakoak, herri zapalduak, etorkinak edota haurrak.

Silvia Federici eta Nicole Cox historialariek emakumeen egoera ekartzen dute gurerara eta marxismoaren ikuspegi klasikoa kritikatu, kapitalismoak sorturiko antagonismoetan sakontzen dute:

“Desde Marx, ha quedado claro que el capital funciona y se desarrolla a partir de los salarios. Es decir, que la fundación de la sociedad capitalista se basa en los asalariados y en su directa explotación. Lo que todavía no tienen claro ni han asumido las organizaciones del movimiento obrero es que, justamente mediante los salarios tiene lugar la explotación de los que no tienen salarios. Y es justamente la falta de salario lo que esconde una explotación todavía más efectiva.” (Federici & Cox, 2013, 1.orr)

Hau da, lan merkatu ofizialetik kanpo edo parte izanda ere sektore desberdinek pairatzen dute kapitalismoaren zapalkuntza. Zapalkuntza hau esparru ezberdinetan adierazten da, besteak beste, lan merkatuan sartu ezinik dagoen paper gabeko etorkina, homosexualak izateagatik baztertuak diren pertsonak edota haurrak pairatzen duten zapalkuntza. Eta, zehazki, zergatik haurrak?

Esku pribatuentzako aberastasuna sortzea da kapitalismoa mugiarazten duen logika nagusia. Halaber, esku hartzerik gabe eskaintza eta eskariaren bidez autorregulatzen den merkatua gutxi batzuen eskuetan jarritz. Horretarako, jendartean egitura ia gehienak kapitalaren birproduktzio eta metaketa dute helburu.

Haurrak, jaiotzez, ekoizpenerako ez dira baliagarriak, nahiz eta haurren munduaren inguruan urtero izugarritzko irabazi ekonomikoak sortarazten duen negozioa egon. Mendebaldeko herri ia gehienetan haurrak jaiotzen direnetik ia nerabazarora arte, ez dira baliagarriak haien lan indarra saltzeko.¹ Zuzenean ez dute etekin ekonomiko argirik sortzen. Herri baten aberastasun mailan ez dute eraginik kapitalismoaren logikaren baitan².

Gainera, haien jaiotzen ondorioz hainbat emakume soldatapeko lan merkatutik kanpo gelditzen dira epe luze batez. Nazio Estatu bakoitzak duen lan hitzarmenaren arabera, gurasoek haur bat izateagatik dituzten eskubideak desberdinak badira ere, kapitalak behartuta onartu behar izan dituen eskubide sozialak dira.

Berriki, Espainiako Enpresarien Elkarteko lehendakariak³ egindako adierazpenak edota Apple zein Facebook bezalako enpresek eramaten dituzten praktikak honen adibiderik argienak ditugu⁴. Hamarkadetan zehar langileek eskuratutako eskubide sozialak azken urteotan kinka larrian daude, besteak beste amatasun-baja. Estatu

1

Nazioarteko Lan Erakundeak emandako datuen arabera 2013an munduan 168 milioi haur lanean jarduten dute.

² Gaur egun, herri baten aberastasuna neurtzeko erabiltzen den aldagai nagusia irabaz ekonomikoak dira. Bestelako, aldagaiak ez dira erabiltzen. Irizpide nagusia Barne Produktu Gordina da.

³ <http://www.publico.es/politica/547945/la-presidenta-del-circulo-de-empresarios-madre-de-seis-hijos-se-opone-a-contratar-a-mujeres-en-edad-fertil>

⁴ <http://www.jornada.unam.mx/2014/10/15/sociedad/047n2soc>

Batuak, Kanada eta Europar Batasunaren arteko Merkataritza Librerako Akordio Transatlantikoa onartuz gero egoera okertu daiteke⁵.

Hala ere, ezin dugu ahaztu etxeke andreek egiten duten soldata gabeko lana ezinbestekoa dela kapitalaren birprodukziorako. Hauek baitira, gerora, beraien lan indarra salduz hainbat gizonen zaintza lanaz arduratzen direnak. Zaintza lan hauek, nahiz eta soldatapean edo soldatarik gabe izan, baldintza nahiko kaskarretan izaten dira (Federici et al., 2013).

Halaber, haurdunaldiagatik soldatapeko lana uztera derrigortuta ikusten diren emakumeak, nahiz eta jendartearen birprodukziorako funtsezko diren zaintza lanak aurrera eraman, kapitalaren logikatik kanpo daude. Funtsean kapitalarentzako, zaintza lan horiek ez daude bideratuta merkatuaren lan indarrerara, baizik eta izaki inproduktibo bati alegia. Beraz, kapitalarentzat ez da onargarria eta ezin dira denboran luzatu. Horregatik, amatasun-bajak tarte konkretu baterako besterik ez dira.

Lehen aipatu dugun moduan, kapitalismoak helburu konkretu batzuk ditu eta bere jarduerak horietara bideratzen ditu. Haurrak, lan merkatuako subjektu inproduktiboak izateaz gain, bere ingurunea guztiz arrotza egiten zaie. Bere ingurunea, klase, adin eta genero konkretu baten beharretara egokituta baitago.

Honen adibiderik argiena herrien eta hirien osaketa dugu. Kapitalismoa ez da soilik sistema ekonomiko huts bat, kapitalismoa lurralde antolaketa eta honetan bizitzeko eredu ere bada. Hiriek zein herriek historikoki pairatu dituzten transformazioak honen adibide ditugu, une oro kapitalaren birprodukzio eta metaketara bideratuta baitaude (Medel, Fernández & Slachevsky, 2014)⁶.

Herrien zein hirien egitura arkitektonikoak, besteak beste haurrengan, guztiz arrotzak dira. Egitura hauek zuzenduta baitaude adin tarte konkretu bateko pertsonentzako: kaleen antolaketa, garraioak, errepide sarea, naturaren gehiegizko ustiaketa, etxeak, auzoen egituratze ekonomikoa eta hainbat egitura arkitektoniko.

⁵ <http://www.pikaramagazine.com/2015/01/el-ttip-contra-las-mujeres/>

⁶ Medel, Fernández eta Slachevsky David Harvey-ri eginiko elkarrizketatik ateratako ideia.

Kapitalismoak bere birproduktzioarako zuzenean edo zeharka dituen egitura horiek ez dituzte kontutan hartzen haurren beharrak, bai ordea helduen munduarenak, besterik ez.

Francesco Tonuccik (Tonucci, 2014) ere, argi eta garbi adierazten du gaur egungo hirien antolaketa haurren beharrak kontutan ez izateaz gain, hauek ez direla hauetan parte aktiboa. Honetaz gain, hirien antolaketa haurren garapenean eragin zuzena dauka:

“Si un niño o niña no puede salir de casa por si solo, no puede jugar, y si no puede jugar no puede “crecer”. El juego es seguramente la experiencia que más incide en su desarrollo en los primeros años de vida para poner los cimientos sobre los que luego la escuela, la familia y la sociedad construirán conocimientos y habilidades.” (Tonucci, 2014, 35.orr)

Gramscik (Gramsci, 1970) aipatzen du kapitalismoak bere mesedetan jarduteko gainegitura propioak dituela, eliza, hedabidea edo eskola besteak beste. Ikuspegi marxista gramsciano batetik eskolak, kapitalismoak sostengaturiko bestelako gainegiturek bezala, helburu ideologiko nagusi bat du, kapitalismoaren birproduktzioa eta metaketa gutxi batzuen mesedetan jarduteko. Bertan, klaseen arteko gatazkak ematen direlarik.

Haurrak hasierako urteetan ikuspegi ekonomiko kapitalista batetik subjektu inproduktiboak izanik eta gainera, haien presentzia ekoizpen prozesuan desorekak sortzen baditu, kapitalarentzat oztopo bilakatzen dira. Hortaz, oztopoa hain oztopo ez izateko egitura bat behar du kapitalak, bere birproduktzioarako egitura. Egitura hori eskola deritzogu, hain zuzen ere.

Alde batetik, aipatutakoaren harira, hirien eta herrien egiturak ez daude prestatuak haurren behar eta interesei erantzuteko. Haurrak bertan askatasunez heztea ezinezkoa da. Hortaz, eskola kapitalismoaren egituraketa arkitektonikoaren parte ere bada; eskola alegia, kapitalismoaren haurtzaindegia bihurtzen da.

Mendebaldeko herrietan azken hamarkadatik hona arrunta izan da, bi gurasoak etxetik kanpo lan egitea, horrek areagotu du haurrak eskolaratze goiztiarra. Gurasoen

lanaldia 8 ordukoak izaten direnez, haien haurren ardura eta heziketa prozesuaren zati handi bat eskolaren menpe gelditzen da.

Askotan lanaldia 8 orduko bada ere, ordutegia zatitua izaten da. Guraso askok etxetik kanpo 10 ordu egiten dituzte. Hortaz, gurasoak egunean zehar ezin dira haien seme-alaben zaintza lanaz arduratu. Seme alabak eskolaratzea ezinbestekoa egiten zaie lan esparrua eta familiarra aurrera eraman ahal izateko. Eskola kapitalismoaren haurtzaindegia bihurtzen da, lan esparruaren beharrei erantzuten die eta ez haurren beharrezkoei.

Kontutan izaten badugu ingurunearen osaketa arkitektonikoa haurrentzako guztiz arrotza dela, horrek haurren mugimendu askatasuna, ekimen propioa edo bizitza autonomoa mugatzen duela, pertsona nagusi baten konpainia ia beharrezkoa suertatzen da. Gurasoak etxetik kanpo lan egiten badute, aukera gutxi dituzte haurren “zaintzaz” arduratzeko. Horregatik, eskola ere ezinbestekoa egiten zaie.

Hau, ziurtasun osoz, ez da eskolaratze goiztiarra azaltzen duen aldagai bakarra. Eskolaren gaineko irudi hegemoniko positiboa da. Jendearen imajinarioan haurren heziketa prozesuak eta eskolak bat egiten dute. Mendebaldeko jendartearen gehiengo batek, haur edo gazteen heziketa prozesua automatikoki eskolarekin lotzen dute. Eskolaren beharra ez da zalantzan jartzen hori baita gaur egun mendebaldeko jendartean heziketa prozesuaren ikuspegi hegemonikoa.

Hegemonia ez ulertuta modu kuantitaboa, ikuspegi Gramsciano batetik baizik. Gure eguneroko bizitzan hainbat ideia, ohitura, hitzen esanahien lotura edo balore barneratzen ditugu. Hauek jendartean ohikoak, ohikoagoak, ez hain ohikoak edo ez ohikoak izan. Ideia, ohitura, hitzen esanahi edo balore hegemonikoak jendartean errotuta daudenak izango dira (Gramsci, 1970).

Beste alde batetik, eskola ez da soilik oztopoak ekiditeko egitura, alegia hamaika funtzio gehiago betetzen baititu. Hasierako urteetan, bideratuta badago kapitalismoaren haurtzaindegia izatera, zeharka hezkuntza jasotzeko, egituratzeko, transmititzeko,

pentsatzeko formetan kapitalismoaren balore eta forma hegemonikoak transmititzen ditu.

Izan ere, haurra subjektu inproduktiboa izatetik subjektu produktibora bilakatu behar da. Etorkizunean lan merkatuan haien lan indarra salduko duten subjektuak formatu behar dira. Horretarako eskolak kapitalismoaren oinarritzko ideiak, baloreak, egituratzeko formak edota erlazionatzekoak ere transmititzea ezinbestekoa da.

Ikasgaien osaketan, zein edukiak diren baliagarriak eta zeintzuk ez “markatzen” digu eskolak. Zein irakasgai ikasi behar ditugun eta zeintzuk ez. Bertan jakintzen inflazioa edo devaluazioa gertatzen direlarik. Ikasleen arrakastan, motibazioan eta hazkuntza prozesuan eragin zuzena dauka. Hainbat haurren imajinazioa, ekimena, gaitasunak eta zaletasunak mugatzen direlarik (Fernandez Enguita, 1995).

Normalean edukiak bideratuta daude gerora lan merkaturako prestakuntza jasotzera. Eskolak ez dira jakintzen eta pentsamendu dibergentearen osaketarako guneak. Eskolek pertsonak lan merkatura bideratzen dituzte, ikas prozesuaren fase bakoitzean ezaugarri propioak dituelarik. Ikasleek ekoiztu behar dute eta, era horretan, ekoizpena, eskola gainditzea suposatzen du (Doin & Guzzo, 2012)⁷.

Egituraketari dagokionez, eskolak egitura hierarkikoa du. Eskola estamentuetan bananduta dago. Ikasle - Irakasle dikotomia edota irakasle zuzendaritza organoen arteko diferentzia. Bertan islatzen da, nortzuk duten boterea eta nori dagokion erabakiak hartzea. Eskola jendartearen egituraketa hierarkikoaren isla ere bada. Txikitatik hierarkizazioa asimilatzekeo prozesuan eskolak badu zeresana.

Hierarkia, boterea eta obedientzia elkarlotuta daude. Nork ematen dituen aginduak eta nork obeditu behar ditu. Ikasleek eskolako erabakiguneetan ez dute ia ahotsik, hasierako urteetan nabarmenagoa da. Ikasleek erabaki nagusienetan ez dute parte hartzen. Modu honetan, etorkizuneko subjektu akritikoak eta parte hartzeko gaitasun gabeak osatzen dira. Pentsamendu hegemonikoa osatzen da.

⁷ *La educación prohibida* pelikula-dokumentala.

Obedientzia eta parte hartze eza ez dute soilik barneratzen, jakintzaren iturria noren eskuetan dagoen ere agerian gelditzen baita. Irakaslea jakintzaren iturria da eta ikasleak jakintza hori asimilatzen du. Subjektu eta objektu dikotomia agerian gelditzen da. Ikasle-irakasle dikotomiarekin apurtzeko bideak ez dira ezartzen. Intersubjektibitatea ez da bilatzen (Flecha, 1997).

Pertsonok erlazionatzeko ohiturak, baloreak eta arauak bereganatzen ditugu. Gerora, gure bizitzako beste esparruetan, adibidez, lan munduan normaltzat jotzen ditugunak. Aipatutako dikotomien birprodukzioarekin, funtsean “buru lana eta eskulanaren zatiketa” birproduzitzen da.

Besterik gabe, marko teoriko honen bidez agerian utzi nahi izan dugu kapitalismoak haurrak baztertzen dituela eta eskola kapitalismoaren birprodukzio zein metaketarako supraestruktura dela. Beraz, eskola kapitalismoaren behar arkitektonikoa izateaz gain, hainbat balore, ideia, ohitura edo arau transmititzeko egitura dugu. Bertan, haurren gaitasunak eta garapen askea errespetatzen ez delarik.

3. Helburuak eta hipotesiak:

Marko teorikoan haurra kapitalismoaren subjektu baztertu gisa eta eskola kapitalismoaren gainegituratzat definitu dugu. Bertan zenbait ezaugarri erreproduzitzen direla aipatu ditugu. Hipotesiak baieztatzeko eta ezeztatzeko, hezkuntza eredu postkapitalista eraiki nahi duen Bizi Toki proiektuak ezaugarri horiek erreproduzitzeko gai den edo ez ikertzea lan honen xedea da. Horretarako hurrengo helburu zehatzak kontutan izango ditugu:

1. Bizi Tokiren osaketa arkitektonikoa aztertu; proiektua gauzatzen den gune fisikoa, ordutegia, egutegia, eskolaren funtzioak zein barne egituraketa aztertu.

2. Jakintzaren osaketa eta transmisioa nola suertatzen den aztertu. Edukien aukeraketa, edukien antolaketa eta edukien transmisioa. Prozesu osoa, jakintzaren

osaketatik transmisiora.

3. Pertsonen artean sortarazten diren erlazioak nolakoak diren aztertu. Erlazio horietan hierarkizazio harremana mantendu edota erlazio horizontalak sortzen diren. Hau da, obediencia, boterea, aginduen iturria, erabaki guneak, belaunaldien arteko harremanak

Bizi Toki jendarte proiektuaren inguruko hipotesiak hurrengoak izango ziren:

- Bizi Toki jendarte proiektuak hezkuntza sistema kapitalistarekin haustura larriak ezarri eta hezkuntza eredu post kapitalistaren zutabeak eraikitzen ari ditu.
- Espazio fisikoaren osaketa arkitektonikoak zein bere funtzioek ez dute zer ikusirik eskola kapitalistarekin. Espazio fisikoaren helburuak bestelakoak dira. Gurasoentzako Bizi Toki ez da seme alaben heziketaz arduratzen den espazio bat haien lanaldiak irauten duen bitartean.
- Eskola kapitalistan sortarazten diren botere harremanak, erlazionatzeko formak hausten ahalegintzen dira. Helduak zein haurrak subjektu partehartzaile aktiboak dira. Bien arteko elkarrekintzatik edukiak sortu eta transmititzen dira, subjektu-objektuaren arteko banaketa dikotomikoarekin apurtuz.

4. Marko metodologikoa:

Ikerketa honen objektua Bizi Toki jendarte proiektua dugu. Bizi Toki proiektua bere osotasunean, bertako kideei zein Bizi Tokiren egituraketari erreparatu nahi diogu. Bizi Toki proiektua aztertu ahal izateko metodologia kualitatiboa erabiltzea erabaki dugu.

Ezarrirako helburuak ez ditugu kuantifikatu nahi, haratago joan nahi dugu zera aztertzeko, zein nolako harremanak sortarazten diren Bizi Toki jendarte proiektu kolektiboan. Beraz ez dugu soilik kapitalismoaren logikak erreproduzitzen diren edo ez aztertuko.

Garrantzitsua iruditu zaigu, aztergai dugun objektua zuzenean aztertzea. Bizi Tokira hurbiltzea eta gertutik aztertzea zer nolako harremanak gauzatzen diren, proiektuaren nondik norakoak ezagutu eta honen egituraketan sakondu. Halaber, proiektu honen parte diren subjektuekin harreman zuzena edukitzea ezinbestekoa da, esanguratsuak iruditzen zaizkien gaiak azaleratzeko eta haien testigantzetatik eguneroko errealitatera hurbiltzeko.

Ikerketa egiteko erabilitako teknikak hiru izan dira; behaketa, elkarrizketak eta dokumentuen analisia. Hiru teknika hauek elkar erabiltzeak hurbilpen zehatzagoa eskainiko digu. Behaketa partehartzailearen bidez elkar ekintzan sakondu dezakegu; elkarrizketaren bidez bestalde, jarrerak, esperientzia edota hausnarketa pertsonaletara heldu gaitzke; eta azkenik, dokumentuen analisia esparru teorikoari erreparatzeko baliagarria izango zaigu.

Behaketa parte hartzaileak, azterketa objektura modu zuzenagoan hurbiltzeko, zentzumena eta praktikak elkartu edota aztergai diren pertsonekin elkarrekintza areagotzeko aukera eskaintzen du (Gordo & Serrano, 2008). Soziologiaren munduan gertutasuna kritikatu izan bada ere, kontrakoa defendatzen dutenak badaude, hain zuzen ere, gertutasun horrek sortaraz ditzakeen eremu zein eszenatokiak aztergai dugun objektuarekiko hurbilpena errazten dutelako(Guash, 1997).

Teknika honen bidez, diskurtsoaz haratago joan gaitzke. Hau da, aztergai dugun objektuak esandakoaren nondik norakoak gertutik ikertzeko. Behatzeko esandakoa praktikarekin bat datorren edo ez, diskurtsoa eta praktikaren arteko aldea handiago edo txikiago izan daitezkeelako. Diskurtsotik praktikara jotzeko.

Erabilitako beste teknika kualitatiboa elkarrizketa erdi egituratua izan da. Teknika hau oso garrantzitsua da, subjektuen informazio pribatua eta pertsona horrekiko lortzen dugun enpatiaren arabera jasotako informazioa oso esanguratsua izan daitekeelako.

Guztira Bizi Tokin parte hartzen duten bi pertsonen iritziak jaso dira. Bi pertsona hauek Bizi Tokiko kide aktiboak izateaz gain, haien seme-alabak proiektuaren parte ere badira. Elkarrizketa hiru atal desberdinetan egituratu dira. Betiere, lanaren helburuak eta hipotesiak baieztatzeko edo ezeztatzeko aldagaiak jarraituz, egitura beti xehetasun osoz jarraitu ez den arren.

Elkarrizketa hasi aurretik elkarrizketatuei galderen nondik norakoa azaldu eta zerbait gehitzeko aukera eman zaie. Lanaren atal desberdinetan prozedura berdina jarraitzen ahalegindu gara. Ikertzaile eta ikerketa subjektuaren arteko iritziak elkar trukatzuz, metodologia komunikatiboaren (Flecha, Gómez, Sánchez & Latorre, 2006) zenbait lan ildoak jorratuz.

Erabilitako azken teknika dokumentu-analisia izan da. Teknika honek, dokumentuen berezitasunak objektiboki deskribatzea, antolatzea eta irudikatzea ahalbidetzen du. Aztertutako dokumentuak Bizi Tokiren web orrialdean ageri dira (Bizi Toki, 2015).

5. Lanaren garapena:

Bizi Toki jendarte proiektua Behauzen, Nafarro Beheran, 2011tik martxan dagoen egitasmoa dugu. Bertan, Ipar eta Hego Euskal Herriko hogei bat lagunek, teoria eta hezkuntzaren inguruko hausnarketak praktikara eramaten dituzte.

2011an proiektua abiarazi bazuten ere, Bizi Tokiren lehenengo hazia 2009an kokatu behar da. Urte hartan, egungo hezkuntza sistemarekin bat ez zetozen hainbat lagun bildu ziren. Hezkuntza kontzeptua era zabalagoan ulertuta, hau da, eskolan jasotako hezkuntzara mugatu gabe. Jendartean transmititzen diren baloreak edota etxeoak bere gain hartzen dituen hezkuntzaren ikuspegi orokorretik hausnarketari ekin zioten.

Hezkuntzaren ikuspegi orokorra ardatz hartuta, gaur egun indarrean diren etxeo zein eskolako hezkuntza ereduak, curriculuma, hezkuntzari lotutako legeak, jendarte balore hegemonikoak... alde batera utzita, hurrengo galderen inguruan hausnartzen hasi ziren. *“Haurrekin zer nolako bizimodua nahi dugu? Zer transmititu nahi diegu?”*.

Buruturiko hausnarketak eskola alternatiboan kokatu zituzten, eskola alternatiboa hezkuntza ereduaren alternatiba gisa alegia. Ondoren, alor desberdinetatik (antropologikotik, historikotik, ekonomikotik, zein politikotik) egindako gogoetek, eskola alternatiboaren kontzeptua gainditzea eta “eskolari alternatiba” kontzeptua heldu zuten.

Bizi Tokiko BG1⁸ kideak behin eta berriz zera azpimarratzen du egindako elkarrizketan, Bizi Tokiren gogoetak pasa direla eskola alternatiboaren eredutik eskolaren aurreko alternatiba eredura. Elkarrizketa osoan zehar eskola alternatiboekiko aldea nabarmendu nahi du. Hau da, Bizi Toki proiektua ez dute kokatu nahi eskola alternatiboaren ereduan.

Ikertzaileak Bizi Tokiri buruz hitz egiterakoan “hezkuntza proiektu” terminoa erabiltzen du jakinda “eskolari alternatiba” kontzeptuan kokatzen direla. Hezkuntza proiektua aipatzerakoan, hezkuntza bere osotasunean hartzen du, gorago aipatu dugun moduan.

Baina BG1k gaur egun ez dela hezkuntza proiektua nabarmentzen du, nahiz eta heziketak proiektuaren barnean parte handi bat okupatu. Bizi Toki jendarte proiektu moduan definitzen du: proiektu politikoa, ekonomikoa, kulturala, soziala eta, horren barnean, proiektu orokorra den ezkeroz, hezkuntza ere jorratzen da.

Web orrialdean hezkuntza proiektua irudikatu arren, hurrengo hilabetetan moldaketak egingo dituzte aurkezpen teorikoan. Hor agertuko den kontzeptu nagusia ez da izango hezkuntzari lotutakoa, komunitate, kolektibo, jendarte proiektu bati lotutako kontzeptua baizik.

Jendarte proiektuaz hitz egiterakoan, eguneroko bizitza bizi eta ulertzeko formaz ari dira. Kulturaren sorkuntza, transmisioa eta atxikita doazen baloreak. Gaurdanik, beste eredu ekonomiko eta sozial bat eraikiz; baita politikoa ere, norbanakoen zein taldeko erabakiak, auzi politikoak direlako. Beraz, hezkuntza gure eguneroko bizitzaren

⁸ Bizi Toki Guraso 1

esparru guztietan atxikita azaltzen da esparru propioak izanda ere.

Belaunaldi guztiak bere baitan hartzen dituen proiektuaz ari gara, gurasoak, guraso ez diren helduak, zaharrak, gazteak eta haurrak biltzen dituen proiektuaz ari gara. Bizi Toki jendarte proiektua ez da mugatzen soilik gazte edo haurrengan, beste belaunaldiak proiektuaren subjektu aktiboak dira aldi berean.

Bizi Toki jendarte proiektua balore batzuetan oinarrituta dago, balore horiek Bizi Tokiren irizpide ideologikoak dira. Balore horiek Bizi Toki zer den hobeto ulertzeko lagungarriak dira. Web orrialdean jasota dituzten aipatutako baloreak hurrengoak dira:

- Euskaraz bizi
- Jendarte ez kapitalista bizi
- Eskolari alternatiba bizi
- Kolektibotasuna bizi
- Burujabetasuna bizi
- Elkar laguntza eta adiskidetasuna bizi
- Autosufizientzia ekonomikoa bizi
- Elkarri emanez bizi
- Naturarekin orekan bizi
- Pentsamolde kritikoa bizi
- Bizitza pasionantea bizi

Egindako elkarrizketetan, behaketan, dokumentuen analisisian datu gehiago jaso baditugu ere, helburuak eta hipotesiak argitzerako bidean hiru esparruetara mugatuko gara. Bizi Tokiren osaketa arkitektonikoa, jakintzaren osaketa eta transmisio eta azkenik, pertsonen artean sortarazten diren erlazioak.

5.1 Bizi Tokiren osaketa arkitektonikoa:

Bizi Toki espazio kolektiboa da non jendarte proiektu oso bat aurrera eramaten den. Jendarte proiektu horretan komunitateak garrantzia handia izan arren, ezin da esan

bertako kideek bizitza komunitarioa egiten dutenik; zentzu hertsian, ez baitirelako bizi gau eta egunez. Fisikoki Bizi Toki ezin definitu daiteke komunitate bezala, espazio kolektibo moduan baizik.

Bertan, kideen asistentzia ez da derrigorrezkoa eta ez dago egutegian ezarrita. Parte hartzaile bakoitzak erabakitzen du zein egunean joan, zenbat egun joan nahi duen, egun pasa, lo egitera, bi egun, hiru egun, aste oso bat edo dena delakoa.

Asistentzia derrigorrezkoa ez bada ere, Bizi Tokiko kideen arteko parte hartzea arautzeko beste mekanismo batzuk ezartzen dituzte. Asanbladan hilabete bakoitzeko egutegia jaso eta bakoitza Bizi Tokin noiz egongo den adierazten du. Horren arabera, gauzak antolatzen dituzte.

Bertako kideek, Bizi Tokiz gain, haien eguneroko bizitza beste lokalizazio geografiko baten gauzatzen dute. Bizi Toki bilakatu daiteke denboraldi labur edo luze baterako haien bizi proiektua eramateko gunea, baina ez gune zentrala eta bakarra. Bertako kideek Euskal Herriko txoko desberdinetatik datoz.

Espazioaren zentralizazioak ez dakar atxikita bertako kideek egunero, ordutegi zehatz batzuetan, ordu tarte konkretu batzuetan, derrigorrez, bertatik igaro behar izatea. Espazio horrek derrigortasuna ez dakar atxikita, aldeztatik markatutako ordutegirik ere. Bizi Tokiko BG2ri⁹ eginiko elkarrizketan zera aipatzen zuen, soilik jateko eta lo egiteko orduak markatzen direla, haurren erritmoak errespetatzeko asmoz.

Espazioa ez da hezkuntza jasotzeko gune huts bat, espazioak hainbat funtzio bete ahal ditu. Horregatik, espazioaren antolaketa haien eguneroko bizitza birproduzitzeko behar ditugun baliabideak eskaintzeko asmoz pentsatuta dago. Behar fisiologikoak asetzeko prestatua dago, bertako kideek egonaldi luzeak pasa ahal dituzte bertan eta ordutegia zein egutegiak ez du mugatzen haien parte hartzea.

Espazioaren zentralizazioa aipatzekoa da, hau da, proiektua gune fisiko zehatz

⁹ Bizi Toki Guraso 2

batean aurrera eramaten da. Bizi Tokiren eraikina Behauze herrian kokatuta dago, proiektua bertan gauzatzen delarik. Eraikin horrek, arkitektonikoki espazioaren zentralitatea hartzen du. Eraikina aipatzerakoan, eraikina eta eraikinaren inguruak osatzen duten bestelako espazioaz ari naiz, ortua edo landa gunek besteak beste.

Espazio fisikoaren zentralizazioa trantsizionala dela aipatzen dute behin eta berriz. Alde batetik, lokalizazioa Behauzen egoteak, partehartzaile bakoitzaren bizi eremuetan horrelako proiektu bat gauzatzeko ezintasunari erantzuten dio. Hortaz, behar gisa gunek fisiko zehatz batean kokatzea pentsatu zuten, epe labur-luze batean Bizi Toki Euskal Herriko beste txoko batzuetara zabaltzea izanik haien asmoa.

Beste aldetik, jendarte proiektua den heinean, herri batean hamaika espazio izan daitezke erabilgarri proiektua aurrera emateko. Herriko hamaika espazio horiek proiektuari osotasun gehiago emango liokete. Gaur egun, hori posiblea ez bada ere, epe luzerako ikuspegia hori da, alegia edozein herri proiektua gauzatzeko gunek bilakatzea. BPG1ren esanetan:

“bizi gara herri batean eta bueno izango dira 10 toki desberdin nun gauzatzen den proiektu hori. Izango da, baten garage tailerra, izango da espazio bat non jarduera batzuk egingo ditugun, beste baten pentxea edo landa eremua, beste praktika batzuk egingo ditugu, lokal batean ukango dugu material desberdina, brikolagea, beste leku batean izango da dantza egiteko espazioa....” (BG1, 3.orr).

Espazioaren barne osaketari dagokionez, hainbat txoko dituzte antolatuta; brikolaje txokoa, psikomotrizitate txokoa, margotegi txokoa, ortua, liburutegi txokoa edota buztingintza txokoa. Txoko hauek ez daude bakarrik bideratuta haurren beharrak asetzera, txoko hauek Bizi Tokiko edozein partaidek erabili ahal ditu.

Txoko hauek ez dute ordutegi zehatzik edo eskoletako gelen funtzionamenduaren antzik. Txokoak edozein momentuan daude erabilgarri kide guztientzako, adina edozein delarik. Pertsona bakoitzaren eguneroko bizitza gauzatzeko gaitasuna euskarri moduan ulertu behar ditugu.

Adibidez, ortua pertsonen elikatzeko beharra asetzera bideratuta dago. Brikolajea, etxean egon daitekeen edozein ezbehar konpontzera bideratuta dago.

Margotegia, adierazpen artistikoa lantzerantz bideratuta dago. Gainontzeko txokoekin hamaika adibide gehiago jarri ahal ditugu. Hortaz, txokoak unean uneko behar pertsonal eta kolektiboei erantzutera bideratuta daude.

Txokoak adin eta pertsona bakoitzaren garapen maila zein ezaugarri fisikoak kontutan hartzen ditu. Normalean espazioen osaketa arkitektonikoa helduentzako prestatuta dago. Bizi Tokin aldiz, pertsona ororen garapen maila eta ezaugarri fisikoak irizpide izanda osaketa arkitektonikoa gauzatzen da, bakoitzaren beharren aniztasuna errespetatuz.

5.2 Jakintzaren osaketa eta transmisioa:

Bizi Tokiko kideek hezkuntza osotasunean ulertzen duten heinean, ikasketa prozesu iraunkor moduan ulertzen dute. Bizi Tokin, edozein gunek, zereginak zein momentuk, norbanako zein taldearen ikasketa prozesua osatzen dute.

Bizi Toki jendarte proiektua ez dago bakarrik hezkuntzara bideratuta; hezkuntzak proiektuaren zati garrantzitsu bat okupatzen baitu, eguneroko bizitzaren esparru eta eginkizun guztietan atxikita dagoelako, hain zuzen ere. Hortaz, edukien aukeraketa, antolaketa eta transmisioa aztertuko dugunean ikuspegi horretatik abiatuko gara.

BG1ek aipatzen du eskolaren kontzeptua gainditzerakoan, hezkuntza bilakatzen baldin bada jarduera ez banandua kolektibo baten eguneroko bizitzan, kolektibo horrek jarduerak egiteko erabiltzen dituen espazio guztiak hezkuntzarekin egongo direla lotuak, nahiz eta zentzu hertsian ez egon hezkuntzara bideratuta.

BG1k bai BG2k elkarrizketetan zehar hainbat adibide jartzen dituzte. Liburutegi txokoaren edo brikolaje txokoaren kasuan BG1k hurrengo dio:

“Orain bai, liburutegi txoko bat antolatu duk, liburu batzuekin eta txoko horretan hemen egin dugun bezala liburutegia duk eta hemen da espazioa, irakurtzen eta idazten ikasteko. Hau ez da hezkuntzarako espazioa, hau da espazio bat non edozein adinetako jendea liburuak hartu irakurri, idatz

dezake eta abar badu horretarako tokia eta haurrek ere badute horretarako tokia (...)

Ondoan dagoen brikolaje txoko bat, baina brikolaje txokoa ez da heziketarako antolatutako txokoa eta ez da haurrentzako antolatutako txokoa. Hor da hemen gauden guztiontzat antolatutako txoko bat eta helduok han brikolajea egiten dugu.” (BG1, 4.orr)

BG2k adibidez, txoko moduan antolatuta ez dagoen beste espazio bat aipatzen du, sukaldea. Berarentzako sukaldea etxeko lekurik “sakratuena” da, tailer inportanteena. Bertan hainbat kontzeptu eta eduki lantzen direlarik; *“lehenengo ospitala, lehenengo eskola ere bai, zer jan, zenbat jan, nola jan, murtxikatu, gero garbitu”*. Hark dioen moduan, edozein *“ gune fisiko, edozein adaska, gurpil, aitzur bilakatu leike tailerra be bai”* (BG2, 1.orr). Berak nabarmentzen du edozein gune bilakatzen dela hezkuntza transmisiorako espazio.

Eguneroko bizitzaren edozein une edo egoera bilakatzen da ikasketa prozesua. Halaber, jendarteko supraegiturek baldintzatzen dute norbanakoen hazkuntza prozesua. Supraegiturek baldintzatuko dute zein eduki transmititzen diren eta zeintzuk ez. Zein eduki diren garrantzitsu eta zeintzuk ez.

Galdetzerakoan ea zergatik aukeratzen dituzten txoko horiek, haien erantzuna izan zen - *“edukiz betea dagoelako, zentzuz betea...”* (BG1, 6.orr). Baina txokoak ez daude hezkuntzara bideratuta, hezkuntza zeharka lantzen da txokoetan. Txokoek eguneroko bizitzaren birprodukziara bideratuta daude. Hau da, *“ikasiz biziz, bizi ikasiz”* (BG1, 4.orr) .

Edukiak transmititzerakoan, helduen papera ezinbestekoa da. Bizi Tokin aipatzen dute, haurrek zerbait interesgarria suertatzen zaienean ikasten dutela, haien egunerokotasunarekin zentzuz betea topatzen dutelako. Haurrek egunerokotasunean gurasoak ikusten badituzte baratzean bazkal orduko uzta jasotzen, interesatuko dira eta imitazioa suertatuko da ildo pedagogiko nagusi bezala.

Haurrek helduak imitatu nahi izango dituzte eta helduek bide horretan, pazientziaz jokatu, haien galderei erantzun eta haientzako egokitutako euskarriak sortu beharko dituzte. Haien tamainara moldaturiko aitzurrak, bakoitzaren adinerako egokitutako liburuak eta abar luze bat. Alde batetik, imitazioa haurren ikasketa prozesuaren ardatza dugu eta bestetik, helduek euskarriak sortu beharko dituzte haurren interesei erantzuteko.

Aipatzekoa da, BG1k egiten duen alderaketa Bizi Toki eta eskola baten artean edukiak transmititzerako garaian. Bizi Tokin bizi izandako kasu praktiko bat aipatzen du, Bizi Tokin edukien transmisioa nolakoa den islatuz:

“Hemen gertatu zen haur batek bere aititea ospitalean ikusi zuen eta ebakuntza batekin prostatan. Galdera atera zen, -zer da prostata?-. Bale ba. Erantzuteko eman dago joko bat, hemen dugu beste liburu bat, marrazki bat... Hori lotua da gorputzeko hondakinen kanporatzeko sistemarekin, giltzurriak, pisa, gernua, pin pin pin pin pin pin. Galdera pila bat lotuak eta bueno hori hor gelditzen da zeren interesa bazen eta ya interes galdera batzuetatik abiatuta ba zerbait aztertu dugu bai...

Zoaz zu prostaten inguruko interes berezik ez duen haur bati, eskolan egiten den bezala. -Bueno gaur, prostata zer den aztertuko dugu-. Prostata zer den ze axola zaien jakitea! Ez da grabea ba hamabi urteetan prostata zer den ez baldin baki. Behar bada, hamasei urteetan sortuko da interesa ba orduan bai oso emankorra izango da ikasketa prozesua” (BG1, 7.orr).

Behaketaren bidez elkarriketetan jasotakoak konfirmatu ahal izan ditugu. Adibidez, euriak sortutako lokatzak kotxeak parkingetik ateratzekoan zailtasunak sortarazten zituen. Orduan, heldu batek porra, eskorga eta teila zaharrak hartu zituen kotxeei bidea irekitzeko. Jarraian, haurrak bertaratu ziren eta helduari laguntzen hasi ziren, era naturalean. Momentu horretan, adin desberdinetako hurrek hainbat kontzeptu landu zituzten.

Bizi Tokin hurrek, haien buruari jarraituz, imitatuz edo haur eta helduen arteko galderen bidez ikas dezakete. Betiere, egunerokotasunarekin lotura duen testuinguru eta egoera natural batean, lehen aipatutako kasuetan islatzen den moduan alegia.

Laburbilduz, edukien aukeraketa bizitzan interesgarria denarekin lotua dago. Antolaketa, gure eguneroko beharrei erantzuteko sortzen ditugun egituren araberakoa da. Azkenik edukien transmisioa, ikaskuntza autodidaktaren bidez, imitazioaren bidez edo sortutako galderei erantzunez emango da.

5.3 Pertsonen arteko erlazioak eta erabakiak:

Jendarte guztietan erlazionatzeko formak sortu eta erreproduzitu egiten dira. Bizi

Toki ez da salbuespen eta bertan pertsonen arteko harremanak nolakoak diren aztertzerakoan hainbat aldagai izan ditugu aztergai. Aurreko ataletan aztertukoarekin lotura estua duelarik.

Hasteko, Bizi Tokiren erabakiguneak aztertzerakoan, BG1k bi erabaki gune desberdintzen ditu. Alde batetik, helduek soilik parte hartzen duten bilkurak eta bestetik, kide guztiek parte hartzen duten bilkurak:

“Biltzar bat daukagu eta biltzar baten eztabaidatzen dugu. Atzo gauean izan gendun biltzarra hemen eta gauza guztiak eztabaidatzen ditugu, erabakiak hartzen. Biltzar horietan haurrak ez dira egoten, egiten ditugu gauean berante edo goizean goiz, gaiak astunak direlako haurrentzat eta gai astunak direlarik haurrak ez dira interesatzen, hasten dira jokoetan eta ez dago girorik bilkura bat egiteko. Eta gai batzuk, nik uste, helduen dagozkion gaiak dira eta ez haurrenak. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu egotea espazio bat bakarrik gaudeen eta haurrak ez.

Gero badugu goizetan, “ingurun ingurun” deitutako jarduera bat eta hor elkartzen gara denak haurrak eta helduak eta hor egiten dugu pixkat emozionalki nola gauden eta aipatzen dugu. Gero eguneko egitaraua antolatzen dugu denon artean. Eta hor, bai gaudela adin guztietakoak, erabakiak hartzen dira...” (BG1, 7.orr)

Talde barneko botere harremanak aztertu ez baditugu ere, Bizi Tokin erabakiak era horizontalean hartzeko esparruak eraiki dira. Gune horietan ez dago zuzendaritza organorik edo aginduak era kolegiatuan hartzen duen talderik. Bilkuretan hartzen diren erabakiak adostasunaren bidez ahalegintzen dira hartzen. Baina adostasunik egon ezean bozketa egiten dute; bertan, %75k proposamen baten alde egin behar du onartua izan dadin.

Hausnarketa haien egunerokotasunarekin lotura estua duen jarduera da. Horretarako aipatu ditugun bi erabaki gune ezberdinak dituzte. Helduen biltzarrean jendartea proiektua da eztabaidagai nagusia, eta kide guztien batzarrean aldiz, norbanakoen zein taldearen nahiak edo beharrak mahai gainean jartzen dira.

Bilkura hauetan zein beste espazioetan pertsonen arteko harremanetarako komunikazio ez bortitza dute irizpide. Komunikazio ez bortitzaren bidez ahalegintzen dira, pertsonen arteko komunikazio orekatuago eta ez gatazkatsua sortzen. Horrela,

norbanako zein talde barnean sortzen diren mota guztietako hartu-emanak modu ulerkorragoan eta enpatikoagoan aurrera eramatea erdietsi omen daiteke.

Bizi Toki belaunaldi desberdinak bere baitan hartzen dituen proiektua da, adin desberdinak elkar harremanetan jarriz. Adinaren arabera sailkapenik edo jarduerarik ez dago ia kasu gehienetan. Haur eta helduen artean sortarazten diren harremanak simetrikoak izaten saiatzen dira.

BG1k honako hau aipatzen zuen, adibide moduan: bere semea futboleko pegatinekin etorri zitzaionean lehen aldiz lagun batzuen etxetik bueltan. Ondoren, pakete gehiago eskatu zizkion, nahiz eta BP1ri interesgarri ez iruditu, bion arteko negoziazioa eman zen. *“Emango dizkiat 3 euro astean eta hiru euro horiekin hik kudeatuko duk zer nahi dukan erosi. Pegata horiek hori nahi dituk. Baina beste gauzak ez ditiak erosiko”* (BG1, 7.orr). Bizi Tokin helduek ez dute zertan erantzun behar haurren nahi guztiei baina haurren eskariak eta interes guñeak arretaz jasotzen dituzte.

Belaunaldi bakoitzaren beharrak, eskariak eta interes guñeak kontutan hartzen ahalegintzen dira. Belaunaldi guztiak bere gain hartzen ahalegintzen dira inor ez alboratuz. Horregatik, bakoitzaren ekintzak edo ahaleginak ez epaitzen saiatzen dira, epaitzeak pertsonen garapen pertsonala mugatzen duelako hain zuzen.

Bizi Tokin argi daukate gaur egun mendebaldeko jendartearen haurren problematika ez dela barneratzen, baina horri buelta emateko eramaten ari den bidea gogor kritikatzeko dute. BG1ren ustetan, haurrengan pilo bat zentratzen ari gara eta ustezko errege-erreginetan bilakatzen ari omen dira. Berak aipaturiko adibide batean ikus daiteke Bizi Tokin harreman horiek nola suertatzen diren:

“Dantza hemen egin nahi baldin badugu, bada, ematen diogulako dantzari zentzu sakon bat eta guk heldu bezala dantza praktikatzeko dugu. Ez kezkatu haurretaz, ikusten baldin badituzte nagusiak dantza egiten plazerrez, interesatuko dira eta beraiek hurbilduko dira dantzari.

Gero, bai, beraien adinari, beraien gaitasunei egokituko ditugu gauzak... Ez diegu eskatuko metro ta erdiko salto bat egitea zazpi urte baldin badute. Edo ez diegu eskatuko erabiltzea metroko aitzur bat erabiltzea, ez! Aitzur txiki bat, laguntza eman behar bada, eta galderak erantzun eta abar. Oro har,

ari gara zentratzen komunitateen jardueren gain eta ez komunitatea haurren jardueren gain.” (BG1, 6. orr)

Heldu bezala kolektiboki zer bizi nahi duten hausnartzen dute; arlo ekonomikoan, politikoan, sozialean, kulturean... Hausnarketak nola eraman praktikara pentsatu eta gutxiago kezkatzen dira haurraz. Hau da, gehiago kezkatzen dira haiek zein baloreen inguruan bizi nahi duten. Izan ere, ez dituzte haurrak komunitatearen erdi gune bihurtzen.

6. Ondorioak:

Lanaren azken zatian gaudelarik planteatutako helburuak eta hipotesiak argitzeko beharrean gaude. Beraz, alde batetik, ikerketa objektua izan den Bizi Toki jendarte proiektuan haurrek subjektu antagonikoak izaten jarraitzen ote duten, eta bestetik eskola kapitalistaren ezaugarriak erreproduzitzen ote dituen. Hipotesi nagusia argitzerako bidean plazaratutako azpi hipotesiak ere argituko ditugu.

Lehenik eta behin, Bizi Toki jendarte proiektua bere gain belaunaldi guztiak hartzen dituen proiektua dela aipatu beharra dago. Jendarte kapitalistan ez bezala, ez dago klase, adin edo genero konkretu baten beharretara egokituta (Federici et al., 2013). Ingurunea kide guztien beharren aniztasunei erantzutera bideratuta dago. Bizi Tokin haurra ezin daiteke definitu subjektu zapaldu bezala.

Are gehiago, haurrak Bizi Tokin ez dira subjektu inproduktiboak. Haurrak pertsonak dira, gaitasun eta behar propioekin. Pertsonetako ikuspegia bestelakoa da, pertsonak ez dira objektuak haien lan indarra saltzeko ahalmenarekin. Pertsonen beharra eta existentzia beste parametro batzuetan kokatzen da, alegia termino ekonomikoetatik haratago.

Ikuspegi hau kontutan izatea oso garrantzitsua da Bizi Toki eta eskola kapitalistaren arteko alderaketa egiterako orduan. Alderaketa hau egiterakoan ere, Bizi Toki orain dela gutxi martxan dagoen mikro proiektua dela ulertu behar dugu nahiz eta

eskola kapitalistarekin alderatu. Eskola kapitalista kuantitatiboki beste parametro batzuetan kokatzen da, baina Bizi Tokik kualitatiboki eskola kapitalista zalantzan jartzeko aukera ezin hobea eskaintzen du.

Kapitalismoa une oro kapitalaren birproduzio eta metaketara bideratuta dago (Harvey, 2014), sortarazten diren egiturek haurren beharrak kontuan hartzen ez dituztelarik. Are gehiago, hurrek kontutan ez izateaz gain, ez dira hauetan parte aktiboa (Tonnucci, 2014). Hirien eta herrien egiturak ez daude prestatuak haurren behar eta interesei erantzuteko, haurrak bertan askatasunez heztea ezinezkoa delarik.

Egoera horretan, kapitalismoaren haurtzaindegia bihurtzen da eskola. Gurasoen lanaldiak 8 ordukoak izaten direnez, haien haurren ardura eta heziketa prozesuaren zati handi bat eskolaren menpe uzten dute. Hortaz, eskolak gurasoei haien lan indarra lan merkatuan saltzeko “aukera eskaintzen” die haien haurren zaintza lana eskolaren esku gelditzen delako.

Bizi Tokin sortutako egiturek bertako kideen garapena dute helburu nagusi, ez daude inolaz ere kapitalismoaren birproduzio eta metaketara bideratuta. Komunitatea helburu izanda, bertan parte hartzen duten kide guztiak bilakatzen dira subjektu aktiboak, haur zein heldu. Kide bakoitzaren heziketa eta garapen askea bultzatzeko euskarriak sortzen dira.

Halaber, Bizi Tokik ez du zerikusirik eskolarekin. Bertan, ez dago egutegi edo ordutegi zehatzik, ezta gurasoen lanaldien premiei erantzuten dien ezer ez. Gurasoek haurrak goizean ez dituzte uzten eta arratsaldean haien bila doaz. Bizi Tokin belaunaldi desberdinak elkar bizi dira eta kide bakoitzak erabakitakoaren arabera nahi beste denbora igarotzen dute. Bizi Tokik ez du erantzuten lan merkatuaren beharrei.

Kapitalismoak bere mesedetan jarduteko gainegitura propioak sortzen ditu (Gramsci, 1970). Hezkuntzaren kasuan, eskola dugu adibiderik argiena. Espazioaren zentralizazioa eta hezkuntzaren profesionalizazioa gertatzen delarik. Bizi Tokiren jendarte proiektua espazio zehatz batean ematen bada ere, ez da hezkuntzarako egitura

berezia sortu nahi dutelako. Behar trantsizionala da, partaide bakoitzaren herrietan proiektua gauzatzeko aukera ezagatik gune geografiko zehatz batean kokatzen da.

Eskolaren barne egituraketarekin hausten du ere. Eskoletan ez bezala Bizi Tokiren barne egituraketa eguneroko bizitzaren beharrei erantzutera bideratuta dago. Hezkuntza ez da jasotzen era espezializatuan, ez dago eskola magistralik eta ez daude hezkuntzarako gune propiorik, hezkuntza eguneroko bizitzaren esparru guztietan atxikita azaltzen da. Hau da, *“ikasiz biziz, bizi ikasiz”* (BG1, 4.orr).

Txokoek pertsonen edo taldeen eguneroko bizitzan sortarazten zaizkigun beharrei erantzuteko asmoa dute. Hauek ere, behar trantsizionalak dira. Epe luzerako helburua edozein herrian espazio guztiak bihurtzea proiektua gauzatzeko gunea da.

Hau da, herri baten egon daitezke espazio desberdinak, kulturalak, kirolak, mundukoak, politikoak... hezkuntzaren transmisiorako baliagarriak izango dira. Gaur egun, gune zehatz batean gauzatzen den proiektua, etorkizunean herri baten eremu guztietara zabaltzeko aukera da Bizi Tokiko kideen asmoa.

Hortaz, ez dago curriculum edo ikasi beharreko eduki zehatzik. Bizi Tokin eguneroko bizitzaren behar fisiologiko guztiak asetzeko zentzuz beteta dauden ekintzak aurrera eramaten dituzte, betiere, pertsona bakoitzaren beharrak eta nahiak errespetatuz. Eskola kapitalistak hezkuntza ikuspegiarekin hautsiz, bizitzaren egunerokotasunean hezkuntza barneratzen dute.

Ez daude klase magistralik zein irakasgai konkreturik, Bizi Tokiko partaideren batek galderaren bat izanez gero, galdera horri erantzuna bilatzen ahaleginduko dira bertako kideen artean. Bertako kideek era naturalean eta imitazioaren bidez ikasten dute. Ez doaz klase konkretu batera eduki konkretu batzuk ikastera.

Honetaz gain, marko teorikoan aipatu dugun moduan, kapitalismoak bere mesedetan jarduteko gainegitura propioak ditu eta jendarte honen gainegituretan botere harreman zehatz batzuk ematen dira. Botere harreman horien asimilazioan eskolak badu

zeresan handia. Honen bidez, kapitalismoaren erlazio sistemaren oinarritzko ohiturak, baloreak eta arauak barneratzen ditugu (Gramsci, 1970).

Eskola kapitalistaren bidez kapitalismoaren birproduzio eta metaketarako beharrezkoak dituen balore, ohiturak eta erlazionatzeko forma hegemonikoak transmititzen dira, etorkizuneko lan merkaturako izakiak osatuz; hierarkia, erabaki guneak, obediencia edota jakintzaren iturri dikotomikoa, besteak beste (Doin et al., 2012).

Bizi Tokin erabaki nagusiak biltzarretan hartzen dituzte, Bizi Tokiko kide heldu guztiek parte hartzeko aukera dute. Biltzar honetaz gain, eguneroko plangintza zein sortarazten diren gatazka pertsonal zein kolektiboak konpontzeko kide guztien arteko asanbladak egiten dituzte. Horrela, orizontaltasuna eta kide guztien parte hartzeko aukera bermatzen dute.

Ez dago zuzendaritza organorik, irakaslerik edo obediencia printzipioetan oinarritzen den estamenturik. Heldu edo haurren artean sortaraz daitezkeen ezadostasunen aurrean berdinen arteko negoziazioa ematen da. Belaunaldi desberdinen arteko harremanak orekatuak izaten ahalegintzen dira, bakoitzaren nahiak eta beharrak errespetatuz.

Kapitalismoan egitura sozio-ekonomiko, politiko, kultural, familiar edo hezkuntza arloko egituren nortasunean estamentu desberdinen arteko hierarkia eta obediencia atxikita daude. Erabakiak nork hartzen dituen, nork jaso, nola eman, nola jaso, nola antolatu... Bizi Tokin hierarkia eta obediencia irizpideekin apurtzen ahalegintzen dira.

Jakintzen iturria ez dago irakasle baten eskuetan, nahiz eta helduen papera pilo bat nabarmendu jakintzak transmititzerako garaian. Objektu subjektu harreman dikotomikoarekin apurtzen dute (Flecha, 1997). Pertsona batek zerbait ikasi nahi duenean pertsonen arteko elkarrekintzatik osatzen dute jakintza, ikasketa dialogikoari bidea irekiz.

Bizi Tokin eskoletan birproduzitzen diren kapitalismoaren balore hegemonikoak ez dira birproduzitzen. Lan merkatuan eta bizitzako egitura gehienetan birproduzitzen diren hierarkia printzipioak. Aginduak jaso, aginduak eman eta hauek obeditzeko beharra. Baita, jakintzaren iturri dikotomikoa; nork duen jakintza, nork erakutsi eta nork jaso. Lan merkatuan, buru lana eta esku lanaren zatiketaren bidez islatzen delarik.

Besterik gabe, buruturiko ikerketaren emaitzak ikusita planteatutako hipotesi nagusiak zein azpi hipotesiak betetzen direla esan dezakegu. Gaur egun, Bizi Tokin jendarte post-kapitalista baterako zutabeak eraikitzen ari dira, hezkuntza ulertzeko formak aldatuz. Bertan, haurraren gaitasunak eta garapen askea errespetatzen delarik.

7. Erreferentzia bibliografikoak:

- Bizi Toki (2015) Berreskuratua: <http://www.bizitoki.org>
 - Doin, G & Guzzo, V (2012) La educación prohibida. Argentina
 - Gordo, A. & Serrano, A. (2008). Estrategias y prácticas cualitativas de investigación social. Espainia : Prentice Hall.
 - Gramsci, A. (1970). Antología; selección, traducción y notas de Manuel Sacristán. Mexiko: Siglo veintiuno editores.
 - Guash, O. (1997). Observación participante. Madril: Centro de Investigación Sociológico.
 - Federeci, S. & Cox, N. (2013). Conspirando desde la cocina. Sin Permiso. Berreskuratua: <http://www.sinpermiso.info/articulos/ficheros/10federic.pdf>
- Azken kontsulta: 2015eko maiatzean
- Fernandez Enguita, M. La escuela a examen (1995). Granada: Pirámide editorial
 - Flecha, R. (1997). Compartiendo palabras. Bartzelona: Paidós.

- Flecha, R; Gómez, J; Sánchez, M & Latorre, A. (2006). Metodología comunicativa crítica. Bartzelona: Hipatia Editorial
- Marx, K. & Engels, F. (1848). Manifiesto Comunista. Bartzelona: Los libros de la frontera.
- Medel, V. Fernández, H & Slachevsky, H (2014). Entrevista a David Harvey. Carcaj flechas de sentido. Berreskuratua: <http://www.carcaj.cl/2014/12/el-capital-es-capital-a-donde-quiera-que-vaya-entrevista-a-david-harvey/>
Azken kontsulta: 2015eko maiatzean
- Tonucci, F. (2014). La infancia es un sensible indicador ambiental de nuestras ciudades. Bizkaia Maitea. 35. orr

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

Bizi Toki hezkuntza eredu eraldatzailea?

Eranskinak

1. Eranskina: 1. elkarrizketa

Ikertzailea- Pasatu nizun marko teorikoan egiten nuen hezkuntzaren kokapen orokor bat, alde batetik, ikusten nuelako gaur egun kapitalismoak eskola behar duela. Momentu batean haurrak izaten dira subjektu inproduktiboa eta kapitalismoak dago beti bideratu metaketa eta birproduktzioa. Orduan, haurrak dira subjektu inproduktiboa haien gurasoen lanaldiaren zati bat kentzen diete, haien gurasoei kentzen diete indarra haien lan indarra saldu ahal izateko lan merkatuan.

Gero, haurrak ezin dute saldu, hau da, ez dira subjektu produktiboak, termino ekonomikoetan. Kapitalismoaren logiketatik, orduan, hortik abiatuta, eskola sortzen da, kapitalismoaren “guarderia” ,behar arkitektoniko gisa eta de paso aprobetxatzeko birproduzitzeko kapitalismoaren zenbait balore, ohiturak eta erlazionatzeko formak. Gero, asimilatzen ditugu eta barneratzen ditugu txikitatik. Hortik abiatzen nintzen, iruditzen zitzaidan, planteatzen nuen lehenengo galdera zer da bizitoki?

Bizi Toki Guraso 1 (BG1)- Lehenik azpimarratu nahi nuke, egiten duzun ikerketa ildo hori biziki interesgarri iruditzen zaidala. Azken finean eskertzen (Geldialdia elkarrizketan) Justu zehazte nahi nuen ze neretzat hire ikerketaren ildoak interesgarria duk eta azken finean da, gogoetatzea zer den eskola, zertarako sortu den, ze interesei erantzuteko eta nik uste dut gogoeta hori funtsezkoa dela eta hezkuntza arloan ez dela ematen. Ematen da, azken finean, nola eskolak hobetu, nola eredu alternatiboak sortu, nola haurraz hobetu, kezkatu eta abr... baina ez da ematen galdera horren inguruko eztabaidarik. Zergatik sortu zen eskola? Ze interesei erantzuteko?

Egiten duzun abiapuntua oso garrantzitsua da, gu ikerketa batzuk egiten ditugu arlo horretan eta neretzak oso interesgarria da aztertzea kapitalismo industrialaren sorrerako garaia eta ikustea nola kapitala esku artean zutenek eta industria martxan ezarri dutenek beraiek dutela eskola laikoaren garapena bultzatu. Orduan, hor dagoela aipatu duzun lotura hori. Eskola azken finean alde batetik, emazteen lan indarra esplotatu ahal izateko, emazteen ardura beti, ardura kentzea eta haurrak eskolarizatzea. Beste alde, eskolarizatzea, haurrak azken finean kapitalismo industrialaren beharretara egokitzeke.

Zehazteko dago, haurrak ez zirela klase produktiboa? bueno hori adibidez, lehen munduan edo....

Ikertzailea- Dinot Mendebaldeko jendarteetan. Ikuspegi occidental batetik.

BG1- Gero interesgarri da ere, elizaren interesa eskolaren sorreran aztertzea. Lehenagotik datorrena eta nik uste, hori sakontzea eta argitzea, ekarpen oso interesgarri litzatekela hezkuntzaren inguruko eztabaidari.

Beraz, berantetsizaut eta horren inguruan eginen duzun lana ezagutzea. Hork nik uste oso ondo aztertu beharko lirateke eta oga historikoa, nolabait, eskura ukan ez eskolaren sorrera noiz ematen den? zergatik ematen den? nork bultzatzen duen? eta hor aztertzea lotura benetan hezkuntzaren eta kapitalismoaren interes ekonomikoen artean. Nik uste dut horrek kriston ekarpena litzateke, hori argitzea.

Are gehiago, zehaztu ahal izatea Euskal Herria bezalako eremu batean nola hori sortu zuten eta lehen eskolak nola sortu diren eta nork sortu dituen, zein interesentzat. Nik oso oso argi dut eskola bat ez dela sortu herritarrengandik, herritarren beharrei erantzuteko, ez haurreana, ez helduena, eskolaren sorrera boteretik datorrela eta hori ikertu behar dugu. Zehaztu behar dugu, eta hor baldin badugu noizbait mahai gainean ezartzeko zerbait zehatza, nik uste, oso oso interesgarria izango litzatekela. Hemen, Euskal Herrian, bultzatzeko benetan eztabaida sakona eskolaren funtzioari buruz eta helburuei buruz. Ordun, txalo eta ni ere gogoetan nago.

Ikertzailea- Ikusi duzu la “Educacion prohibida”? Aipatzen dute, apur bat gainetik, austriar inperiotik....

BG1-eta non topatu ditut nik informazio batzuk. Orain ez dakit nik, eskuin ezker irakurketak egiterakoan, eta hor zehazten dute pum , Ingalaterran, Eskozian... Eskozian adibidez, zerbait eta kapitalismoaren sorrerarekin batera nola bultzatu zituzten eskolak.. Hori niretzat da funtsezkoa. Ongi ulertzeko eta zer den eskolaren funtzioa.

Ikertzailea: Eskolaren funtzio Euskal Herrian ez dago oso ondo zehaztuta, baina eliza izango zen abangoardia zentzu horretan eta fijo haiek daukatela jasota.

BG1-“Gartxot” filman pixkat ikusten da. Elizak nola eta azken finean, haurrak eskolarizatzen, heziketa erlijiosoa ematen. Hori guztia zehaztu behar dugu, zehaztu behar dugu eta lortu behar genuke, dokumentotxo bat, eskolaren sorrera orokorki Europan eta ondorioz, konkretuki Euskal Herrian noiz saiatu da.

Ikertzailea- Oso kurioa, gainera, hor gertatzen dena,.. Heziketa betidanik egon da jendarte orotan, baina gertatzen dena hor ya da egiten dela zatiketa moduko bat, heziketan benetan balio duena, boterearentzako balio duena, eta bestea apartekoa. Hor dago ya, menperatzeko edo adoktrinazioa...Adoktrinazio erlijiosoa eta kapitalismoaren sorrerarekin, konstituzioa eta Estatua,

BG1: Hiritartasuna, bozkatzera joatea, instituzioak, onartzea instituzioak....Hori neretzat da funtsezkoa. Hor kriston ekarpena, hor sakontzen baduk....

Ikertzailea: Momentuz, Gradu amaierako lana lan txikitxo da eta bai gustatuko litzaidakela horren ostean sakontzea horretan....

BG1-Nire ustez, hork badago hutsune handiago, ez eta harremanak, orain apaitu dituguna haur heldu, euki alternatiboak, landua da goitik behera eta hain zuzen beti kokatzen gara eskola alternatiboaren eremuan barnean. Eta behar gara kokatu alternatiba eskolari.

Benetan nik uste izan behar pugggg!!!.... guk oso argi dugu ez gara eskola alternatiboaz ari, ari gara alternatiba batez eskolari. Eskola kontzeptua azterketa historiko hori eginda lehenik eta gero zehaztuz zein diren eskolaren funtzioak eta ezaugarriak edo. Hau ya siuuuuu eta beste zerbaitera goaz.

Ikertzailea- Niri gustatzen zait Bizitokiz hitz egiten dudanean hezkuntza proiektuaz

aritzea. Ez dut aipatzen eskola termino...

BG1-Hori baino haratago, ez dakit hortan sartzen garen edo baina nik lotura horrekin egingo diat. Azken finean bizitokiren gogoetan edo pasa gara eskola alternatiboaren eredutik alternatiba eskolari eta eredura. Eta alternatiba eskolari ereduaz ari garelarik, ba zera, gu gehiago hurbilduko gira, Pedro Garcia Olivo batek ba deitzen duen adibidez, "la educacion komunitaria indigena" kontzeptuetaz.

Orduan, hor ere berak zentratzen du pixkat educacion, hezkuntza gaiaren gainean. Gai hori, hortan zentratu nahi duelako. Baina berak aztertzen duelarik Txiapaseko komunitate bat, berak ez hezkuntza soilik aztertzen ari. Bera ari da komunitatea bere osotasunean aztertzen ari. Bere aspektu ekonomiko, politiko, kultural, sozialetan eta horren barnean aztertzen du hezkuntza.

Nik uste gaur egun bizitoki ya ez da hezkuntza proiektua, bizitoki da, gizarte proiektua, jendarte proiektua bat. Proiektu politikoa, ekonomikoa, kulturala, soziala eta horren barnean, proiektu orokorra denez, hezkuntza ere jorratzen da. Gaur egun, gure orrian, argi da, ateratzen den inpresio da hezkuntza, baina bueno sartzen bagera aurkezpenean eta abar eta abar ya ikusten dugu proiektu orokorra dela. Nik uste, ondoko hilabeteetan eta emango ditugun moldaketak aurkezpen teorikoan ildo horretatik joango dira.

Hor agertuko den lehen kontzeptua ez da hezkuntzari, ez da heziketari lotutako kontzeptu bat, da komunitate bati, kolektibo bati, gizarte proiektu bati lotutako kontzeptua. Eta horren barnean ba hezkuntza eta abr abr.

Ikertzailea-Beste zehar lerro batzuk zehar lerro batzuk jendarte guztietan bezala.

BG1 - Gero argi da, proiektua hau sortzen dela hezkuntzaren problematikatik hara eta egi da ere, hain zuzen proiektu orokorretan, kolektiboetan, politiko-kulturaletan usu ez dela integratzen haurren problematika edo gutxi. Gure ustez, toki guztia okupatu behar du hezkuntzak eta horregatik, bizitokitik ateratzen den proiektua nahiz eta

orokortasunean aterako den kontzeptu nagusia ez izan ba heziketari lotua, heziketa parte handi bat okupatzen du proiektuaren barnean. Zeren eta ikusten dugu funtsezko hitz egiten ari bagara proiektu kolektibo batetaz belaunaldi guztiak bere baitan dituen kolektiboaz ari gara. Hor bai dugula haurren hezkuntzaren ardura eta hor bai dugula gogoeta sakon sakon bat gai horri buruz.

Ikertzailea- Hori izan zen pixkat abiapuntua nahiz eta gero bilakatu osotasun horretan. Neukan apuntatuta , proiektu kolektiboa, bizitza kolektiboa, eta azkenean hortik lortu duzue bizitza kolektiboa. Orduan, badago nolabaiteko haustura edo eskolaren egiturarekin?

BG1- Erabat, erabat. Orain bizitza bizitza kolektiboa... Bueno guk aurkezten dugu eta egiten dugu espazio kolektibo bat nun balore jakin batzuen inguruan, hainbat jarduera baditugun. Horrek esan nahi du, horrek esan nahi bizitokiren bizitza kolektiboa ez dela ulertu behar baita ez bada komunitate bat bezala. Bizitokin ez gara komunitate bat, ez gara bizi gau eta egunez, kide guztiak toki honetan, oso urrun gaude horretatik eta hainbatek behar bada hori nahi izan dezakete baina beste hainbatek ez. Erran nahi dut ta bizitoki da gaur egun espazio kolektibo bat, eta parte hartzaile bakoitzak berak erabakitzen du etortzen den egun pasa edo eguna eta lo egitera edo bi egun, hiru egun, aste oso bat.... Beraz, bakoitzak badu bizia hemen eta badut bizi beste toki batetan.

Orduan, gehiago nik uste dut, azken finean, ikusi behar da, bizitoki epe luzerako helburuetan. Hau da, gaur egun, hemen biltzen gara gutariko bakoitzak gure ohizko ingurumen sozialean ez dagoelako hainbeste jende bertan halako proiektua eraikitzeko.

Baina nik gaur egun bizi naizen Behorlegin, 80 biztanle dira, txikia da... Inguruko herrietan, Garazi alden demagun, Garazi aldean, gaur egun, balitz eta halako proiektua gauzatzeko posibilitatea, han egingo genuke bizitoki proiektua. Han egingo genuke bizitoki proiektu eta pixkat aurre ikusten dugun bezala edo ez litzateke baitaezpada definiturik hemen bezala espazio bakar bat proiektuarentzat.

Litzateke gehiago, bizi gara herri batean eta bueno izango dira 10 toki desberdin

nun gauzatzen den proiektu hori. Izango da, baten garage tailerra, izango da espazio bat non jarduera batzuk egingo ditugun, beste baten pentxea edo landa eremua, beste praktika batzuk egingo ditugu, lokal batean ukango dugu material desberdina, brikolagea, beste leku batean izango da dantza egiteko espazioa....

Azken finean, ez du holako lokalizazio geografiko bakar bat. Azken finean, gizarte proiektu bat denez, ba gauzatzen baldin bada herri batean edo, herriko hamaika espazio izan daitezke erabilgarri holako proiektua aurrera eraikitzeko. Eta gero ba bakoitza bere etxean bizitzen da, lo egiten du edo izan daitezke lo egiteko espazio kolektiboak ere bai eta abr abr.

Ezberdin behar bada gaur egun, bizitoki dena eta epe luzerako perspektiba zein izango zitekeen.

Ikertzailea- Perspektiba haustea da lekuaren zentralizazioarekin eta zabaltzea...

BG1- Hori egiteko argi dago gaur pasa behar garela fase hontatik eta akaso 20 urte gehiago ere. Nork daki? Azken finean gertatuko dena da ikusten delarik beste aukera batzuk direla, beste toki batzuetan aski jenderekin han beste zerbait sortuko da.

Ikertzailea- Eta aipatzen zenuen haurrek daukatela garrantzia handia. Azkenean proiektu honetan, haurrentzako proiektuak hau nola dago egituratuta?

BG1- Gauza da azken finean gaintitzen baldi badugu eskolaren kontzeptua eta azken finean, hezkuntza bilakatzen baldin bada jarduera ez separatua, lotua dena eta kolektibo baten eguneroko biziari. Orduan, hork behar litzateke halako argazki bat hartu edo irudikatu behar litzateke, azken finean, kolektibo batek jarduerak egiteko erabiltzen dituen espazio guztiak. Eta espazio horien artean, ez dago espaziorik espreski hezkuntzari lotutakoak. Denak dira lotuak hezkuntzari. Zeren sukaldea, da espazio bat non sukaldaritza egiten dugun nun hezkuntza arloko kontzeptu pila bat landuko dira bertan gaudelarik, belaunaldi guztiak nahastuta.

Orduan, behar genuke hautsi eskema hori espazio berezi batzuk behar direla

hezkuntzarako. Orain bai, liburutegi txoko bat antolatu duk, liburu batzuekin eta txoko horretan hemen egin dugun bezala liburutegia duk eta hemen da espazioa, irakurtzen eta idazten ikasteko. Hau ez da hezkuntzarako espazioa, hau da espazio bat non edozein adinetako jendea liburuak hartu irakurri, idatz dezake eta abar badu horretarako tokia eta hurrek ere badute horretarako tokia.

Eta hemen, ez da haurren hezkuntza egingo, hemen egingo dira irakurketa eta idazketa jarduerak, haurrak eta helduak egongo dira. Eta haurrak eskatzen duen heinean ba horren laguntza berak ikasten eta idazten ikasteko.

Nik uste, horrek balio duela ba gauza guzti guztientzat. Ondoan dagoen brikolage txoko bat, baina brikolage txokoa ez da heziketerako antolatutako txokoa eta ez da haurrentzako antolatutako txokoa. Hor da hemen gauden guztientzat antolatutako txoko bat eta helduok han brikolagea egiten dugu. Haurrak han dauden heinean guk egiten dugularik haientzat ikasketa prozesua da. Eta galderak egongo dira, erantzunak, laguntza eta abar...

Material egokitua txikientzat eta ez holako segada batzuk egiteko, txikitxoagoak, ez bi kiloko mailua, txikitxoago bat. Haurrentzat material egokitua, zahar batentzat egingo genukeen bezala, elbarritu batentzat....

Azken finean beharren aniztasunari egokitutako materiala egon behar da. Baina ez du zertan horrek hasiera baten baina helburu nagusi bezala hezkuntza izan behar. Bizitza azken finean, biziari lotua izan behar da, ikasiz biziz, bizi ikasiz, Hori guztia lotua da, ez da bereizketarik, ez da espazio zehatzik antolatua hezkuntzarako. Bizia da, antolatzen dugun gizarte bat eta hurrek tokia dute.

Ikertzailea- Aipatzen dut oso gaineratik, kapitalismoak eta hori Marxek aipatzen zuen kapitalismoaren irakurketan ematen dela lan indarra eta lan intelektualaren arteko banaketan, hori fabriketan. Nekazariak joaten direnean industrial gunetara landa exodoarekin, ematen dela banaketa eta gero nik uste, hori extrapolatzen da jendarte sektore guztietan. Apurketa bat egin duzue guzti horregaz eta bueltatzen zarete lehengo

hezkuntza hortara. Jendarte bizitza eta jendarte bizitza horretarik berreskuratzen, zuk aipatu duzun hori. Askotan eskoletan zatiketa bat gertatzen da....

BG1- Hor ez dakit oraindik landu duzuen, baina neretzat nahi ta nahiez “ La bala y la escuela” hori landu behar duk.

Ikertzailea- Ez

BG1- Ez ba? hori funtsezkoa. Hori da, Pedro Garcia Oliboren liburua “ La bala y la escuela” . Hor “la educacion comunitaria indigenan” sakontzeko funtsezkoa. Atal hori oso interesgarria. Bigarren atala da hezkuntza sistema occidentalaren kritika zorrotz bat. Eta hirugarrena da “La bala y la escuela”. Hau da, nola estatuak, Mexikok, jartzen duen la bala paramilitarra eta eskola Txipiaseko komunitateak desegiteko, integratzeko kapitalismoari. Beraz, oso interesgarria da. Hor ere, eskola eta kapitalismoaren inguruko gogoeta egiteko. Eta hain zuzen, gogorki kritikatzeko du EZLN gaur egun bere eskatzen diotelako estatuari eskolak

Ikertzailea- Ni egon nintzen komunitate baten ere, EZLNrekin, eta eskola zeukaten, Nahiz eta gero....

BG1- Pozik eskola zeukatela erakustez?

Ikertzailea- Nahiz eta gero eskola ez egon hain reglatuta. Eta askoz ere, askeagoa zen...

BG1- Irakurri Pedro Garcia Olibo bera egon da aztertzen pilo bat eskola han eta, nik uste, liburu hori zuretzat ezinbestekoa da. Nik, pertsonalki, gogotaturikoa hezkuntzari buruz nahiko luzea da denboran eta gure gogoetak heldu ziren hainbat kontzeptuetara baina ez genuen topatu kontzeptu horiek teorizatu zituen pertsonarik. Eta hori topatu dugu Pedro Garcia Oliborekin.

Da benetan lehena, hain kritika radikal eta zorrotza egiten duena. Guretzat, buruan genituen hainbat ideia honek azkenean papel gainean idatzi ditu,

kontzeptualizatu eta abr... eta hainbat ideia ere. Guk ikasi ditugunak ere. Guretzat, da erreferentzia nagusi.

Ikertzailea- Ivan Ilich baita...

BG1- Niretzako mila aldiz hobeto Pedro Garcia Olibo. Mila aldiz. Ivan Ilich oso eskasa antzematen dut.

Ikertzailea- Nik irakurri nuen aspaldin “ La sociedad descolarizada”

BG1- Baina nik irakurri dut eta nahiko azaleko topatu nuen benetan

Ikertzailea- Nik ikusi nuen berak aipatzen duen “Eskolari gabeko jendartea” eta sartzen da pilo bat zenbat diru gastatzen den. Esaten zuen “Hego Amerikan bideratzen da zenbat diru eskoletara eta azken finean egiten ari dutena da, eraman eskola leku batera. Eta zergatik eraman behar duzu eskola ?” Kolonialismo beste puntu bat. Kolonialismoaren beste ikuspegi bat.

BG1- Europak egiten duena Afrikarekin. Hainbat ONG eskola bat sortzeko. Eskola bat gehiago!!! Komunitatearen izaera suntsituko duen tresna bat. Eskola bat ekarri baina nor gara gu eskola bat ekartzeko.

Eurak dute dena guri ikasteko. Oraindik, han biziraute dutelako ohitura interesgarriak eta abr. Dena ikasteko dugu. Eta gu goaz eskola bat sortzera eta jendeari dirua eskatzera eskola bat sortzeko.

Ikertzailea- Nik sentzu hori topatu nion liburuari,

BG1- Nik dinot eskasa ze aipatzen zuen ezagutzen transmisioa sareen bidez eta ez dakit zer. Nik asko interesgarriago ikusten dut gogotatzea “la educacion komunitaria indigena”. Nola ematen den hezkuntza komunitate batean.

Ikertzailea- Badaukat apuntatuta bidalitako emailean

BG1- Hori ere interesgarria gogoetatzeko hezkuntzari buruz. Oraintxe itzuli dute liburu bat eta gazteleratu dute “ El concepto del continuum”.

Ikertzailea- Uste dut, bidali zenidala.

BG1- “El confecto del continuum” eta berak aztertzen du Amazoniako leinu batean eta hezkuntza nola amaietan den hurrekin. Interesgarria antropologian gehienetan helduetaz interesatzen dira eta gutxitan hurrenez. Bere begirada da hezkuntza eta komunitate aninista bat amazonian. Hor oso interesgarria da zeren azken finean ildo pedagogiko nagusia....

Eskola baten zer egiten dugu zentratzen gara haur baten gainean eta hezkuntza occindetala ordun zentratzen da pilo hurren gainean eta hurrak ari dira errege eta erreginak bilakatzen. Berain nahietara makurtzen. Etxe batzuetan hurrek dute agintzen gurasoei. Zentratzen ari gara hurrengan pila bat .

Hori aztertzen badugu antropologikoki inoiz ez da holan eman. Haurra beti egon da zentratua helduen jardueraren gainean. Haurra obserbatzaile bezala komunitate bizitzen dute eta imitazioz ikasten du. Nere hori izan da eskema erabat aldatzeko. Azken finean, gogokatu behar dugu gehiago guk heldu bezala zer bizi nahi dugun kolektiboki; arlo ekonomikoan, politikoan, sozialean, kulturalan...

Guk praktikara eraman behar dugu eta pixkat gutxiago kexkatu hurrenez. Gehiago kexkatu guk ze baloreen inguruan bizi nahi dugun. Hori bizi hainbat espazioetan eta zera transmisioa naturalki transmisioa. Hurrak zer egiten du, bere inguruan zentzua duen guztia ikasi nahiko. Eta gure funtzio nagusia izan behar da pazientzia eukitzea. Hurrak etengabeen ari da galderak egiten, dena ikasi nahi du. Eskolak egiten duen hil jakinmina, hil!!!

Zeren azken finean, haurra bideratzen du eta oso interes gutxi duten gauzak pila

sarrarazi. Ez dator gure interesetatik, ez datozelako biziari lotutako gauzetatik, datozelako beste interes batzuetatik eta orduan, ildo pedagogiko nagusia da imitazioarena. Haurrak ikasten du imitaziotik. Ez du erran nahi kopiatzen duenik baina bai esan nahi du hemen jarduera bat egiten badugu baratzean haurrak ia guztiak interesatuak izango direla baratzeaz, zeren ikusten dituzte helduak egiten zerbait sentsua duena, lotua dena eguneroko biziari, janariari, eta abar...Ikusten gaituzte hor, beraiek ere jarri nahi dira lurra lantzen eta hor ikaste parada izango da mila gauza.

Ikertzailea- Adibidez, hori, zergatik aukeratzen duzue ortua? Edo tailer bat?

BG1- Edukiz betea dagoelako, sentsuz betea... Adibidez, brikolage txokoa egiten baldin badugu izan daiteke etxearen zati konpontzeko, izan daiteke tresna batzuk eraikitzeko. Orduan, zure behar konkretu erantzuten du. Beraz, gauzak egingo duzu txukuna interesarekin, kontzentrazioarekin egiten duzu eta haurrak hori berehala nabaritzen du.

Hemen, helduak egiten ari dira zerbait merezi duena, behar bat, eta berak berehala eskatuko du nahi duela brikolagea egin. Eta hori gauza guztientzat. Dantza hemen egin nahi baldin badugu, bada, ematen diogulako dantzari sentsu sakon bat eta guk heldu bezala dantza praktikatzen dugu. Ez kezkatu haurretaz, ikusten baldin badituzte nagusiak dantza egiten plazerrez, interesatuko dira eta beraiek hurbilduko dira dantzari.

Gero, bai, beraien adinari, beraien gaitasunei egokituko ditugu gauzak... Ez diegu eskatuko metro ta erdiko salto bat egitea zazpi urte baldin badute. Edo ez diegu eskatuko erabiltzea metroko aitzur bat erabiltzea, ez! Aitzur txiki bat, laguntza eman behar bada, eta galderak erantzun eta abar.

Oro har, ari gara zentratzen komunitateen jardueren gain eta ez komunitatea haurren jardueren gain.

Ikertzailea- eta haurra eskatzen dutenean zerbait. Eske egin nahi dut ez dakit zer...Komunitateak erantzuten du?

BG1- ba ez dakit, hemen gertatu zen haur batek bere aititea ospitalean ikusi zuen eta ebakuntza batekin prostatan. Galdera atera zen, “zer da prostata?” Bale ba. Erantzuteko eman dago joko bat, hemen dugu beste liburu bat, marrazki bat... Hori lotua da gorputzeko hondakinen kanporatzeko sistemarekin, giltzurriak, pisa, gernua, pin pin pin pin Galdera pila bat lotuak eta bueno hori hor gelditzen da zeren interesa bazen eta ya interes galdera batzuetatik abiatuta ba zerbait aztertu dugu bai...

Zoaz zu prostaten inguruko interes berezik ez duen haur bati, eskola egiten den bezala. Bueno gaur, “prostata zer den aztertuko dugu”. Prostata zer den ze axola zaien jakitea! Ez da grabea ba hamabi urteetan prostata zer den ez baldin baki. Behar bada, hamasei urteetan sortuko da interesa ba orduan bai oso emankorra izango da ikasketa prozesua.

Orduan, bai, bueno haurrak baldin baditu galderak eta abar... Ni orain ikusten ari naiz nire haurrak interesa duela arrantzarako. Bueno joan naiz erosi du materiala egiteko arrantza tresna egiteko; amua, plomua, kabia eta abr.. Egun hauetan arrantzarako tresnak egingo ditugu eta joango gara arrantzatzerara. Bere interes gune batetik abiatzen naiz, neretzak interesgarria iruditzen zaidan ere bai, eta hori egingo dut.

Orain, nire semea, atzo etorri zait futboleko pegatina batzuekin lehenaldiko aldiz, lagun batzuen etxean egon da eta horrekin itzuli da. Orain, eskatu dit nahi duela paketeak. Bueno ba bere interesa da? Nik ez dut interesgarria ikusten. Orduan egongo da negoziazio bat. Orduan, esangot nik “emango dizkiat 3 euro astean eta hiru euro horiekin hik kudeatuko duk zer nahi dukan erosi. Pegata horiek hori nahi dituk. Baina beste gauzak ez ditiak erosiko”. Orduan, ematen da negoziazioa, nik ez dut zertan erantzun behar bere nahi guztiei. Nik neurtzen dut zein puntutaraino interesgarria den neretzat eta beretzat, eta horren arabera erantzun bat ematen diot. Baina bistan dena, adi egon behar garela haurren eskaerei eta interesguneei ere.

Ikertzailea- Komunitatearen erabakiak nola hartzen dira. Komunitatean bizitzeak...

BG1- Biltzar bat daukagu eta biltzar baten eztabaidatzen dugu. Atzo gauean izan

gendun biltzarra hemen eta gauza guztiak eztabaidatzen ditugu, erabakiak hartzen. Biltzar horietan haurrak ez dira egoten, egiten ditugu gauean berante edo goizean goiz, gaiak astunak direlako haurrentzat eta gai astunak direlarik haurrak ez dira interesatzen, hasten dira jokoetan eta ez dago girorik bilkura bat egiteko. Eta gai batzuk, nik uste, helduen dagozkion gaiak dira eta ez haurrenak. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu egotea espazio bat bakarrik gaueden eta haurrak ez.

Gero badugu goizeetan beste, ingurun ingurun deitutako jarduera bat eta hor elkartzen gara denak haurrak eta helduak, eta hor egiten dugu pixkat emozionalki nola gauden eta aipatzen dugu. Gero eguneko egitaraua antolatzen dugu denon artean. Eta hor, bai gaudela adin guztietakoak, erabakiak hartzen dira...

Ikertzailea- Eguneroko egitaraua aipatu duzu, denon artean erabakitzen da? Alde batetik, lantzen dituzue emozioak eta gero....

BG1- Emozioak landu eta bakoitzak aipatzen nola dagoen, eta gatazkaren bat egon bada aipa daiteke. Antolatzen dugu eguneko egitaraua.

Ikertzailea- Haurrak hor ere badaude?

BG1- Bai. Ze interesak duen? Zer egin nahi lukeen egun horretan? Eta bueno bakoitzak zer nahi duen eta gero ba bueno denon artean tatatatata!

Ikertzailea-eta bueno gero jendea batzuetan dator, ez daude finko?

BG1- Oraintxe egutegia egin dugu hilabete honetarako eta hor idatzi dugu noiz nor egongo den hemen. Horren arabera, gauzak antolatzen ditugu.

Ikertzailea- Egiten duzue hilabete bateko epearekin

BG1- Hori hain zuzen izan da goiz honetako bilkuraren emaitza bat. Behar bat ikusi dugu egitea hilabete baterako planifikazioa. .

Ikertzailea- Nik uste, nik nituen galderak holan erantzun ditugu gutxi gora behera, Beste galdera batuzk egitea izango zen absurdoa eta errepikatzea

2. Eranskina: 2. elkarrizketa

Bizi Toki Guraso 2 (BG2)- Zuk dakizu zenbat buru hainbat aburu? Niretzat etxeko lekurik sakratuena sukaldea da. Niretzako tailerrik inportanteena hor dago. Hor hasten da osasuna, nik hor jartzen dut enfasia, sukalde leku natural den bezala, higieneko gune naturala, irakurketa idazketa ikusi ahal duzue, jolas txokoa, goian psikomotrizitate, margoketa gela eta hauek printzipalki. Eta bueno dena bihur daiteke tailerra.

Baratza, hor atzean badago, buzingintzako txokoa, erremienta gela, aktibitateak bezain beste.

Ikertzailea- Besteak dira euskarriak?

BG2- Gune fisiko edozein adaska gurrpil, aitzur bilakatu leike tailerra be bai. Lehenengo egunean urarik betetzen ari ziren horko loreontzi hori basuekin eta ikusten nuen matematikako eskola bat. Bolumena ta ari zirela ikasten...Murgilduta zeudela matematikan. Ta non aterako dira matematikako saioa inoiz ez dakizu

Ikertzailea- Eta adibidez sukaldea aipatu duzu, sukaldean ere matematika lantzen da ?

BG2- Sukaldean dena, sukaldea da lehenengo ospitala. Gure osasuna, según zer jaten dugun, lehenengo tenplua ere bai, jaten dugunarekin sinisten dugu gure natura ematen diguna eskertu eta gune espirituala ere bada, gorputz eta arima elikatze aukera daukagu. Lehenengo ospitala, lehengo eskola ere bai, zer jan, zenbat jan, nola jan, murtzikatu, gero garbitu,

Ikertzailea- Prozesu oso bat

BG2- Bai osoa, sukaldearen barruan begira ya zenbat gauza esan ditugun. Lehengo eskola, ospitala... sukaldean bakarrik eeee.

Ikertzailea- Gero margotegian, arno stern irizpide jarraitzen duzue...

BG2- Badakizu arno stern istorioa?

Ikertzailea- Zerbait entzunda daukat?

BG2- Hau judutar bat zen eta Paris inguruan baztertua zeuden orfanato kezkatua. Eta orduan, hainbeste orfanato zeuden. Orduan arno stern eman zioten kargua. “Aizak hartu ezazu orfanato honetako gazteok” Hartu zituen eta kasulidadez beste orfanatoetan asko hil ziren gaixotu eta arno zen tokian dena oso osasuntsu zeuden. Badakizu nola egiten zuten? Margo gutxi gutxi zitzuten.

Orduan gazte horiei esan zien. Nola egingo dugu ze margo gutxi dago. Orduan erabaki zuten hartzen zuten pintura ez garbitzea brotxa, han uztea. Ez zeukaten mahai nahiko, orduan, paretean jartzea erabaki zuten. Eta ez da norbaitentzako, bakoitzaren karpetan gordetzen da lana eta paper gehi eskaintzen zaiziki... Hor hezitzailearen papera, nik ikusten dut kamareroa bezela, “zerbait behar duzu? Beste paper bat? Pintura” Hezitzaile askori horrek buruko mina ematen die. Ze hezitzaileak “ Nik esango dut orain matematikan zer egin” edo “nola ez dezatela nik esaten dutena egingo” baizik nik zerbitzari hutsea beraiek zer nahi duten, ze gogo daukaten. Eta hola sendatzen ziren.

Ez ziren gaixotu. Eta gero hori, ez epaitzearena

Ikertzailea- Bideratu daiteke beste esparru batzuetara ez epaitzearena ezta?

BG2-Ya baina gatoz, “aixe polita”, eta gatoz “ beittu ze polita”. Ze ari zara margozten?
Bale ba

Ikertzailea- Gatza da apurtzea

BG2- Giro hau ezagutzen badute, giro honetan elkarrekin ikasten da. Okarriak kontaminatzen diren bezela, gunea ere kutxatu egiten da.

Ikertzailea- Eta hor baita beste harreman mota batzuk sortzen ari dituzue? Azkenean ez da ikasle irakasle harremana?

BG2- Ez, gu ere margozten dugu, eta hor sentitzen zera, ze ondo ze eroso (geldialdia.....) Ez epaitu eta galdetu diot zer moduz galdegin diot. Azken finean, ez epaitzea saila da. Azken finean gizartea aldatzen gatza bada, azken finean heltzen gara konklusiora gure buru aldatzen nahiko lana dugula. Molde horiek barneratu dauzkagu.

Ikertzailea- Barneratuta ditugu eta kostatzen du pilo bat. Barne lan pilo bat egin behar dugu.

BG2- Azken finean hainbeste gauzak ditugu ikasiak, gero, jokamolde horiek ateratzen zaizkigu gatazka bat dagoenean, guri ere, ba dirudi zortzi mila urte daramazkigula oso modu zakarrean hitz egiten. Orduan, orain bihotzen komunikatzea berria da eta. Ni komunikazio ez bortitza asko maiten deten ildo bat da. Entzun duzu komunikazio ez bortitzari buruz?

Ikertzailea-Zerbait

BG2- Ba esaten denez, zortzi mila urte daramazkigu txakal moduan, txakur txiki, amorratua eta orokor besteekin babesteko - “yau yau yau!!!”. Eta girafa bihotzik handiena daukan animalia da. Hogeitahiru kiloko girafa bat da. Hor goitikan ikusi ditzake animalia bakoitza nola den, besteak nola dauden eta ordun, bihotzari bidezko ikaskuntzaren metafora.

Gatazka bat dagoenean edo daukagunean, haserre dago jo egin du dena delako hori iceberraren punta litzake. Azpian behan denak behar berberak dauzkagu, behar berberak dauzkagu denak. Denak nahi dugu entzunda izatea, onartua, ulertua, maitatua....

Komunikazio ez bortitza oso metodologia polita iruditzen zait. Haur hauekin eta lantzeko. Hemen gertatzen dena da gu kolektiboaz,

Ikertzailea- Adibidez, zuek bizitokin hausnarketerako espazio sortu dituzue?

BG2- Etengabe, eske hori da, baldin bagaude engantzatuak patroi zaharretan horrek ez

du uzten fluxuan egoten.. Eta horrekin etengabe aldatzen, etengabe berria, etengabe gatazka nola kudeatu... Betaurreko berri batzuk jaistea bezala da. Ikusi molde berriak.

Lehen galdetu duk hausnarrerako, gauza da hausnarrerako tokia eta bestea bat Bizitoki bezalako guneetan daukagun pribilegia hau praktikan jartzeko. Nik pedagoga nau eta karreran teoria hutsean, curriculumean....gauza gutxi gehiago. Hausnarrerako bai... Nola egingo genuke eskolik gabeko mundu bat? Euskal Indigenek nola bizi gaitzke? Gu baserritik gatoz... nola? Hori hausnartu leike. Beste gauzak bat dek praktikan urteetan eta urteetan maitasunarekin eramanten badek espazio bat pribilegio bat daukagu hau bizitzeko bizitokin. Bizitzeko, hausnarrerako tokiak nik uste ya soberan dauzkagula,

Ikertzailea- Teoria eta praktika.

BG2- Oreka behar dik. Teoria eta praktika arten oreka behar dik. Teoria lantzeko eta gure semea alabekin egunerokoan gatazkak beti hor daude eta nola soluzionatu. Baina hemen ya taldean nola aurre egin.

Ikertzailea- Eta gatazka kolektiboak suertatu direnean bilatzen dira espazioak?

BG2- Hortxe duk zarma. Hortx duk zarma.

Ikertzailea- Gauzatxo bat gai aldatuz, tailerrak eta holan ordutegirik ez daude?

BG2- Ordutegia igual, bazkaltzekoa esan dezakegu pixkat. Beraien erritmoa mantentzeko, lotako orduak. Txokoetarako orduak ez dauzkagu. Gainontzian bakoitzak entzun behar du zer nahi dun. Hor zegok gakoa, eskoletan esaten digute orain matematika, orain ingelesa, orain salto gelak. Hemen ez, hemen hi ze nahi dek? Hori duk txungoena. Hori duk zaila, hi ze nahi dek? Haur hauek naturalki dakarte zer nahi duten.

Hurreko larunbatean hondartzara joan ginen. Aurreko larunbatean eta haurrak revoluzio desberdinetan daude edade honetako haurrak. Alabak hartu eta egin zikin

marra luze luze luze bat, bakar bakarrik bere sormenean, egoteko gaitasuna . Bizitokin hori ikusten da, kutzak hartzen du nahi duenean, bere abentura segi eta holan ikasten dun. Eta mirari bat dun ze ikusten da haurrak badakitela irakurtzen, idazten. Atzo saguak uxatzeko geometriako marrazki bat ekarri nuen eta barruan izena idatzi behar zuten. Harrigarria, berak idatzi zuen, sagua, nik ez nion ezer esan baina ondokoari, ikusi zion zazpi urtekoek nola egiten zuten. Eta nik ezer esan gabe berak egin zuen .

Ni ez nago orain idazten ikasiko duen edo. Oin irakurtzen.....Mirari bat, mirari bat da eta

Gero helduek hor ikusten duk. Lokatzakin arazoak daude kotxea pasatzeko ba, joan da heldu bat hartu du, ekarri ditu teila zaharrak, eta jarri dizkit ordun ya, gazteak atzetik heldu dituk. Eta ya karretillan festa egin da. Bi haur besoetan daude, 6 eta zazpi urteko haurrak karretillan . Bestea porrari emanen. Transmisioa naturala da.

Gauza bat da teorian baina orain ikusi dezakegu, ze sinplea den ezta? Eskolarik gabe!!!

Ikertzailea- Transmisioa beste modu batean egin daiteke eta naturalak ezta?

BG2- Eta guk gurasoak gara responsableak gure haurren heziketan eta ezin dugu beste inoren eskuetan jartzen. Oso potentea da, boterea guk daukagu. Badakizu emakumeak sutan zergatik erre zituzten?

Lehen boterea guk gendun eta hori kentzeagatik. Eta emakume horrek bazekien etxeko bakoitzari zein sendabelarra eman, zer jaten eman, amalurretik hartzen zuen, naturalki zen.... Hori zekiten guztiei sorgina zirela esan eta sutan erre, Berri boterea gure eskuetan hartzeko responsabilidade osoa, botere osoa gure eskuetan daukagu.

Ikertzailea- Ahaldundutzeko

BG2- Izan a la ez izan. Nire ustez, indigenontzat aukera handi bat. Eta euskera. Euskera ere bere txokoa duk hemen.

3. Eranskina: Elkarrikzeta gidoia

Galdera orokorrak: Galderekin hasi aurretik gaia aurkeztu eta eta aldaketa sartzeko aukera eskaini.

- Zer da bizitoki?
- Zergaitik jendarte ez kapitalista bezala definitu?

Bizi Tokiren osaketa arkitektonikoa:

- Zein desberdintasunak daude eskolarekiko?
- Gelak daude?
- Gurasoek haurrak egun pasa hor uzten dituzte? Etxetik eskolara, eskolatik etxera?
- Bizi Toki osatzerakoan orduan osaketa arkitektonikoa kontutan izan zenuten?
- Bizitza kolektiboa?

Edukiak eta jakintzak:

- Nola transmititzen dira edukiak?
- Klase magistralak daude?
- Edukiak irakasgaietan bananduta daude? Disziplinetan?
- Irakasle eta ikasleak daude?
- Nola aukeratzen dira edukiak?

Pertsonen arteko harremanak:

- Nola hartzen dira erabakiak?
- Egitura hierarkikorik?
- Botere harremanak?
- Haur eta helduen arteko harremanak nolakoak dira?
- Haurrak erabakitzeko ahalmenik?
- Egituraketan
- Batzarretan?
- Erabakiguneetan asimetria / Hierarkizazioa ?

4. Eranskina: Behaketa

Lekua	Ordua	Kategoriak
Liburutegia	13:00	Osaketa arkitektonikoa / Edukien trasmisioa
Jantokia	14:00	Pertsonen arteko harremanak
Lorategia	15:00	Pertsonen arteko harremanak
Margotegia	15:15	Osaketa arkitektonikoa / Edukien trasmisioa
Brikolage txokoa	15:30	Osaketa arkitektonikoa / Edukien trasmisioa / Pertsonen arteko harremanak
Lorategia	16:00	Edukien trasmisioa / Pertsonen arteko harremanak